

# GUaiXe.eus



**Patata Operazioa**  
igandean Urdian  
eta Satrustegi  
artean



Sakanerria >> 6

**Sakanako Gidak** ibarreko denda,  
establezimendu, enpresa eta  
autonomoen berri zehatza sartuko  
du Sakanako etxe guztietara



Sakanerria >> 9

## Biomasa, energia autohorniketarako proposamena

>> 8



## Memoria ariketak Ziordian eta Uharten



>> 3/5



**Irañetako kale**  
Nagusian zulo  
handia sortu du  
errekak

>> 7



**Arbizun**  
premiazko  
harrilubeta  
egin dute

>> 7



**Bederatzi**  
hilabetetan 122  
langabe  
gutxiago

>> 9



**Osasuna**  
Promesasen  
hiru sakandar  
ari dira

>> 11



**Koldo Arnanzek**  
Zizur Nagusian  
erakutsiko ditu  
margoak

>> 15

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## Azaroa

# 4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Zamarra eta aterkia.** Azaroaren 4an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan.

**Iosu Garate, Mandela selekta eta Kale sound.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 19:00etan. **Lakuntzako Sorgiñak** tabernan.

**Januzs Prusinowski Kompania.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Folk** ametsetan.

**Rock and choir: El Desvan eta Iruñeko Orfeoiaen Gazte-Korua.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

**The Friday's Crew, SLD eta Jo ta Txo dj.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 23:00etan Arbizuko Argibidea elkartearen. **Arbizuko Gazte Eguna.**

**Seiren.** Azaroaren 6an, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Folk** ametsetan.

### Dantza

**Aureo.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Dantzaz konpainia.**

### Bideo-emanaldiak

**Euskarak 365 egun.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 19:00etan Izurdiagako elkartearen.

### Dokumentala

**Izarren argia.** Azaroaren 4an, ostiralean, 22:30ean Arbizuko Argi bidea elkartearen. **AGA.**

### Zinema

**Fatima.** Azaroaren 4an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Captain fantastic.** Azaroaren 4an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren

6an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Printze Txikia.** Azaroaren 6an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Orogañe.** Azaroaren 1ean, asteartean, 9:00etan Etxarriko plazatik. **Larrañeta mendi taldea.**

### Bizikleta irteerak

**Otsoportillo (50 km).** Azaroaren 6an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:45ean Biotza kanpinetik. **Barranka txirridulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Zizak eta sendabelarrak.** Azaroaren 6an, igandean, 11:00etatik 14:00etara, Irañetako udaletxean.

**Altsasuko V. Arte Azoka.** Azaroaren 13ra astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Artebide.**

### Hitzaldiak

**Zaindu zure dirua.** Azaroaren 10ean, ostegunean, 18:30ean Olatzagutiko kultur etxean.

### Literatura

**La pesca del salmón en Yemen (Paul Torday).** Azaroaren 4an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburutegian. **Irakurle taldea.**

### Tailerrak

**Sukaldaritza.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 20:00etatik 22:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Zaindu zure dirua.** Azaroaren 7an, astelehenean, 18:30etik 20:30era Altsasuko Iortia kultur gunean. Azaroaren 8an, asteartean, 18:30etik 20:30era Ziordiko udaletxean eta azaroaren 10ean, ostegunean,

18:30etik 20:30era Olatzagutiko kultur etxean. **Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.**

### Bestelakoak

**Mus txapelketa.** Azaroaren 4an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. 5 euro bikoteko.

**Gazte eguna.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Arbizun.

**Bazkide eguna.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 12:00etatik aurrera Bakaikuko elkartearen.

**Haurren eguna.** Azaroaren 5ean, larunbatean, 16:30etik aurrera Izurdiagako elkartearen.

**Patata operazioa.** Azaroaren 6an, igandean, 9:15etik aurrera Urdiandik Satrustegira. **Iruñeko Alegria Peña.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 4an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Beilatokia toki egokian. Nahiez gero posible da.** Azaroaren 9an, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Gure Esku Dagoren batzarra.** Azaroaren 6an, igandean, 12:00etan Lakuntzako kultur etxean. Ume zaintza zerbitzua izanen da.



## Irañeta

### Zizak eta sendabelarrak ezagutzeko



Igandean, 11:00etatik 14:00etara, Irañetako udaletxean

Urtetik urtera ziza erakusketa Irañetatik Uharteko Arakilera saltoka dabil, txandaka. Bi urtean behin go hitzordua Irañetari dagokio aurten. Irrentarrek zizez aparte sendabelarrak jartzen dituzte ikusgai erakusketan. Irañetako Euskara Kultur Taldeak erakusketa prestatzen arduratzen da, baina antolatetan parte hartu nahi duten

guztiek ateak zabalik dituzte. Bihar goizean Txapel Azpi elkartearen bilduko dira, handik ziza eta sendabelar bila abiatzeko.

Jasotakoak, arratsaldean, udaletxean sailkatuko dituzte eta han bertan erakusketa prestatuko dute. Udaletxearen beheko aldean egonen da erakusketa. Frontoian izan dira orain arte erakusketak, baina udazkenean hain ohikoa den haizeak traba egiten zuen.

## SAKANA

### Sakandarrak Euskal Kantun

Hainbat urtez antolatu gabe egon ondoren Euskal Kantu Txapelketa bueltan da. Helduen artean euskarazko kantu-zaletasuna sustatzea helburua duten jardunaldiak dira antolatutakoak. 13 bakarlarik eta bikotek eman dute izena itzulerakoan. Eta tartean sakandarrak daude. Euskal Kanturen lehen jardunaldia bihar izanen da, Antsoainen. 18:00etatik aurrera dozena erdi emanaldiz gozatzeko aukera izanen da. Haietako bat Ainhoa eta Itsasne Mundiñano ahizpek eskainiko dute. Oholtzan biolin, akordeoi

eta gitarra doinuen laguntza izanen dute.

Bigarren saioa, Burlatan izanen da, irailaren 13an, 18:00etan. Sakanako ordezkari bikoitza igoko da oholtzara. Lehenik, Ariane eta Munia lakuntzarrak izanen dira, pianoz eta gitarrak lagunduta kantatuko dutenak. Ondoren, Josune Razkin eta Andoni Gasmintza uhartearrak kantariariko dira, akordeoiaren eta panderoaren laguntzaz. Bi saioetako musikari guztiak azaroaren 27an Tafallan elkartuko dira eta kantubana eskainiko dute.

Ostiralero  
**SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Uharteko memoria ekitaldia
- Ziordiko memoria ekitaldia
- Bego Zestaurekin aniztasunaz

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

## &gt;&gt; Uharte Arakil

## Galdutako memoria berreskuratuz

**Silverio Astiz Lakuntza, Silverio Astiz Ezkurdia eta Victor Martirena Alegria 1936an eraildako uharteak herriko seme kuttun izendatu dituzte. Gerraren ondorioak jasan zituzten herriko seme alabek plazan izanen dute beren lekua 80 urte geroago pasa den larunbatean mustutako oroigarrian**

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano

Lastailaren 28an 80 urte bete ziren Silverio Astiz Lakuntza, Uharte Arakilgo alkatea eta haren semea, Silverio Astiz Ezkurdia, Iruñeko kartzelatik atera eta kolpe frankis-

ta eman zutenek hil zituztela. Haren izaera politiko eta herriarekiko izan zuen gardentasuna errotik desagerrarazi zituzten. Victor Martirena Alegriaren kasuan beste data batean izan zen. Aurretik egindako epaiketak gabe erail zituzten hiru Uhartearrak Ibero herriko Zurbao dermionan. Zortzi hamarkada berandua go Aranzadi elkarteak egindako indusketa lanei esker, haien gorpuak berreskuratuzko lanetan ari dira. Victor Martirena Alegriaren

hezurdura identifikatzea lortu dute eta DNA proben emaitzen zain daude Astiz aita-semearen gorpuak identifikatzeko.

“Iberoko Zurbakolurrak mugitzen hasi ziren heinean uhartearren kontzientzia mugituz joan zen”, horrelaxe azaldu zuen Txomin Uhartek, 80 urte memoria galtzen taldeko kideak. Urte oso bateko lana egin dute herrian frankismoak utzi zituen zauri horiek ezagutu eta ahaztu ez daitezela. Hainbat ekimen desberdinak egin dituzte ilbeltzetik hasita, hitzaldiak, zine forumak, informazioa jaso. Egindako lan guztiaren emaitza omenaldi eta ekitaldi xume baten bidez erakutsi nahi zuten herrian eta hala egin zuten larunbatean.

Dozenaka uhartear gerturatu ziren Herriko seme-alabak berriki izendatutako plaza berrira. Miren Ustarrozek, Castillo Suarezek eta Iker Uribek forma berria eman diote plazari. Ustarroz Uharteko eskultorea oroigarriaren egi-lea izan da, Castillo Suarez idazleak Silverio Astiz Ezkurdia testuetan oinarritutako hitzak islatu ditu, eta Iker Uribek plaza zeharkatzen duen murala egin du.

## Oroigarria



Miren Ustarroz, Castillo Suarez, eta Iker Uribe izan dira Herriko Seme-alabak plaza berriaren egileak. Beraiekin batera uhartearrak elkar-lanean aritu dira hainbat auzolanetan mustutze eguna arte. Aurretik zegoen espazioa kontuan hartuz, birmoldaketa bat egin zuten. Modu berezian bildu nahi izan zituzten Uharteneraildako hirupersonen memoria, horretarako, Castillo Suarezek egindako hiru testu islatu dituzte borobil formako eskulturan. Ur puntu bat dago erdian, urak bizitza eta elkarbizitza adierazi nahi du. Herritar asko errepresaliatuak izan ziren herrian eta horiek zutarrak bertikal batzuen bidez irudikatu nahi izan dira. Zutarrak horiek pertsonen itzalaren bidez, lekua, denbora eta memoria erakutsi nahi dute. Castillo Suarezek Silverio Astizek

idatzitako testuak oinarri hartu dituzte olerkia egiteko. Duintasun handiko pertsona zen Silverio Astiz Lakuntza, Uharteko alkate ohia, eta izpiritu hori jasotzen saiatu da. Justiziaren zentzua oso barneratuta zeukan, oso pertsona interesgarria izan zen, eta hori dena biltzea zuen helburu. Hiru testuetan banatu da olerkia, xafila indibidualetan kokatuta. Iraganeko oinarritutako testua da, etorkizunari begira egin dagoena. Irribarre egiteko izeneko olerkiaren azken hitzak hauek dira:

*Baina ez dugu nahi.  
Denak gogoan izateko garaia da.  
Inorenak izan ez diren haiek ere gure izateko.  
Gordean edukitako mina esateko.  
Galdutako aldiak berreskuratuzko.  
Irribarre egiteko.*

## Esanak

Lehen hitza Txomin Uhartek, 80 urte memoria galtzeneko kideak izan zuen. “Egia eta erreparazioa lortzeko lehen pauso bat izatea nahi dugu, gure memoria kolektiboa eraikitzeko”, adierazi zuen Uharteko omenaldiari erreferentzia eginez. Aldi berean, Aranzadi elkarteak, instituzioak, Uharteko Udala eta herritarren auzolana eskertu nahi izan zuten. Ondotik, Jose Luis Mendoza kontseilariak hitz egin zuen. Nafarroako Gobernuak memoriaren berreskurapenarekiko daukan konpromisoa gogorarazi zuen eta alderdi guztiek gai honekiko duten adostasuna nabarmendu nahi izan zuten.

Ainara Aiestaran, Uharteko alkatea, segida eman zion omenaldiari. Herriko seme-alabak plaza berriaren esanahiaren garran-



Omenaldiko ekitaldian, aureskua dantzatu zuten bi dantzarik.



Uharte Arakilgo frankismoko errepresaliatuaren senitartekoak.



Ainara Aiestaran, Uharteko alkatea, oroigarrian krabelin gorria uzten.

tzia azpimarratu zuen. Eraildako familiei oroigarri berezia banatu zuten, bertan lekuko zen Pilar Astiz, bere aita eta anaia izan ziren hil zituztenak 36ko gerran. Hermogones Goñi Martirenak jaso zuen beste oroigarria, Victor Martirena senideen izenean. Oso hunkituta eta eskertuta agertu ziren omenaldutako senideak.

Musikaren doinua, Lur Larraza eta Luisillo Kalandrakak jarri zuten, Barricada taldearen *Petalo* abestiarekin eta Berri Txarraren *Maravillas* kantuarekin. Horretaz aparte, gaitariak eta txis-

tulariak izan ziren Agur Jaunak jotzen. Auresku eta lore eskaintza batekin eman zioten akabera omenaldiari. [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Erakundeen babesa

Nafarroako Gobernu eta parlamentuaren presentzia zabala izan zuen Uharte Arakilgo omenaldiak. Jose Luis Mendoza Hezkuntza kontseilaria, Ainhoa Aznarez Nafarroako parlamentuko lehendakaria, Iñaki Iriarte UPN alderdiko parlamentaria, Asun Fernandez de Garaialde EH Bilduko parlamentaria izan ziren besteak beste. Aldi berean ere, Iruñeko Udaleko zinegotziak izan ziren baita Sakanako alkateak ere. Uharteko Udala urte honetan zehar elkarlanean aritu da omenaldia aurrera eramateko.

**IÑAKI**  
ILEAPAINDEGIA  
BIZARTEGIA  
684 315 869  
Nagusia 14  
ETXARRI ARANATZ

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -  
- AUTOMOZIOA -  
**Lakuntza**  
Etxera eramateko  
gasoleoa  
Alberto Iriarte  
948 576 016 - 609 421 680

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 460 037 Arbizi  
948 468 441 Altsasu  
Auto berri eta  
bigarren eskukoak  
SALMENTA  
Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margotzea

**JAVIER ZELAIA**  
Pintura eta igeltsua  
Zaharberritzeak eta obra berria  
Barneko dekorazioa  
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe  
648 143 615 - Altsasu



Aingeru Mikeo

astekoa

## NO hablo bassko

Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoaren proposamena aurkeztu zuen urriaren 21ean, Gizartearen parte hartzeko aldia zabalduz.

Egun historikoa izan zen, zeren, Nafarroan, orain arte ez baita sekula santan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko plan

sendorik izan. Eta gure belaunaldiari dagokionez, Euskararen Legea 1986. urtean onartu zenetik, hogeita hamar urteko atzerapenarekin badator ere, azkenean heldu da.

Urte horietan guztietan, UPN-PSN (PSOE) binomioaren agintepean euskaldunak ezdeusa izan gara.

Alderdi horientzat, eremu eskalduna edo iparraldeko erreserba izan da neurri batean aintzat hartu beharreko bakarra. Baina, euskara Nafarroako herritar gutxi batzuen hizkuntza dela eta administrazioko lanpostuak eskuratzeko bazterkeriarik ez dela egin behar aitzakiatzat hartuta, euskal

dunok ikusezinak izan gara, eta erreserbatik ateraz gero, arrotz. Plan horretan jasotzen denez, helburua izanen da gizartearen eremu guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, horretarako administrazio publikoaren baitan eraginez eta baliabideak jarritz.

Laster, Gobernuaren leihatiletan *'no hablovaassko'* txistukari igurzkariak nabarmenduta entzundako esaldiaren aurrean ezpainak estutu eta burua makurtu ordez, burua tente eta begietara zuzen begiratu *'puess, usted no tiene cualificación para ese puesto de trabajo'*, esaterik izanen dugu.

## barrutik kanpora

# Dispertsioaren haurrak

Xochitl, Izar, Amets, Haize, Xiberu. Izena dute, eta Etxarriko preso politikoen seme-alabak dira. Euskal Herriko beste haur askok bezala, espetxean ezagutu dute beren aita; edo, beste era batera esanda, ez dute sekula beren aita etxean ikusi. Txiki-txikitatik, haien lagunak jolasten edo atsedena hartzen ari diren bitartean, milaka kilometroko bidaiak amaizina egitera kondenatuak izan dira, horrek dakarren neke eta

arriskuarekin. Haiak dira Espainiako eta Frantziako estatuen dispertsio eta urruntze politika pairatzen dutenen aurpegirik errugabeena eta babesgabeena.

Eta espetxe politika horren alderdirik ilun eta ezkutuen, gutxitan aipatua, politika hori bera diseinatu eta diseinatzen ari diren psikologoena da. Izan ere, estatu aparatuen soldatapeko morroiak dira, gau eta egun presoekin eta haien ingurukoekin

jokaera aztertzen ari direnak, haien senideen oinazearen bidez presoak txikitu eta makurraraziko dituztelakoan, zigorra eta tortura eraginkorrago eta are mingarriago izan dadin.

Beste aldean, beste psikologo talde bat. "Dispertsioaren haurrak, Espetxe politikaren alderdik ilunena" dossier interesgarria prestatu dute (<http://www.etxerat.eus/index.php/eu/txostenak/dosieres-eu> helbidean dago ikusgai).

Bertan, espetxe politika horrek euskal preso politikoen seme-alabei nola eragiten dien aztertze-ko ikerketa baten emaitzak jorrazten dituzte. Ez dugu ahaztu behar espetxe politika hori psikologo batzuek diseinatu, politikoko batzuek erabaki, eta epaile batzuek betearazi dutela, denak adinez nagusiak, jakinaren gainean adinez txikikoek eta nerabeek ere jasan behar izaten dituztela haren ondorio lazarriak.

Hona hemen txostenaren hasieran egiten dituzten galderak, denok ere horren inguruko gogoeta egin dezagun: Zer interes eduki dezake gobernu batek ehunka haur eta adin txikikoren eskubideak ukatzeko? Zer interes eduki dezake gobernu batek haurren bizitzak arriskuan jartzeko? Zer interes eduki dezake gizarte batek eskubide horien ukazioa zurrizteko?

**Sakanako Etxerat**

## hara zer dien

# Heziketa familian

Udazkenarekin batera gure seme-alabak ikasturte berriari hasi dira. Gurasook, berriz, lanari ekin diogu; batzuk etxean, beste batzuk kalean eta askok etxean zein kalean. Egoera honek estresa sortzen digu askotan, denetara ailegatu nahian eta ezinean. Horrek gure seme-alaben heziketan eragin handia dauka ez baita nahikoa beraien ondoan egotea, beraiei kalitatezko denbora eskaini beharra baitago. Eta zeresan nahi du kalitatezkoa izatea? Beraiekin gaudenean, benetan beraiekin egotea, eta ez beste mila gauza egiten. Beraien kezka, pozak... kontatzen dizkigutenean benetan entzuten diegula sentitzea. Gure aholku bat behar dutenean, lasai asko eska-

tu dezaketela. Honek ez du esan nahi beti prest eta beraien beharretara egon behar dugunik, gure bizitza propioa ere badugulako, baina momentu batzuk beraiekin konpartitzeko izan behar ditugula kontutan izan behar dugu.

Gurasoak hezitzaileak gara, eta ahal dugun hobekien egiten dituguz gaurak, zalantzarik gabe. Baina heziketa lan honetan batzuetan galduak sentitzen gara horrek ta mila inseguritate sortzen dizkigu. Limiteak bai, beharrezkoak dira, baina noiz; arauak beharrezkoak dira, baina betetzen ez direnean... zer egin. Komunikazioa garrantzitsua da familian, zalantzarik gabe, baina batzuetan gure seme-alabak ia ez ditugu ikusten eta euren momentu

asko galtzen ditugu.

Nerabeak dituzten familien kasuan, berriz, beste behar batzuk gehitzen dira: seme-alaben lehenengo irteerak, bueltatzeko ordutegia adostu, lehenengo kontsumoei aurre egin eta esku hartu...

Askotan gurasoek diote ez direla gai sentitzen egoera guzti hauen aurrean erabaki egokiak hartzeko. Badira urteak Gizarte Zerbitzuetatik gurasoendako topaketak antolatzen ditugula, kontzientegarrelako gaurko familiek formakuntza eta aholkularitza behar dituztela.

Batzuetan gai konkretuak jorrazten dira eta besteetan guraso eskolak egiten dira. Azken hauek, gurasoek euren kezka, bel-

durak, arazoak eta beste aipatzen dituzte eta profesional baten laguntzarekin orientazioa jasotzen dute.

Oso garrantzitsuak ikusten ditugu gurasoen arteko topaketak bulkatzea, elkarri laguntzeko guneak direlako eta askotan berdinen arteko formakuntzak asko laguntzen baikaitu. Batez ere, aukera paregabea ematen digulako gure egoera berean dauden beste gurasoekin gure kezka konpartitzeko.

Esandakoak esanda, Sakanako guraso zaretan guztiak animatzen zaituztegu zuen herrietan antolatzen diren topaketetan parte hartzea, familien inguruko sareak indartu eta bulkatzeko.

**Sakanako Prebentzio Zerbitzuak**

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO.

Karakterek kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira.

Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko.

Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko:  
**Foru plaza, 23, 1 Altsasu;**  
**gutunak@guaixe.eus** edo  
**948 564 275 telefonoa.**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • [maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Larraitz Amadoz Lazkano eta Jon Otermin Benito  
**ZUZENTZAILEA:** Patxi Flores  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
s a k a n a



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

## SAKANA



## Defuntuak gogoan

Domu santu egunez bizitzaz bete ziren hilerriak, nahiz eta zubia zela eta askok kanpo santurako urteroko bisita aurreratu zuten. Lorez jantzi ziren hilarriak, jendeak gertukoak gogoan izan zituen euren hilobi parean eta errezatu zutenak ere izan ziren.

## Arakil / Irurtzun



## Euskarak 365 egun bideoklipa, sarean

[www.irurtzuneuskaraz.com](http://www.irurtzuneuskaraz.com) web orrian dago ikusgai

Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topaguneak Euskarak 365 egun kanpainarako urtero ikus-entzunezko bat egiten du. Lip-duba izan zen lehenik, stop-motiona joan zen urtean eta bideoklipa aurten. Izurdiagan, Irurtzunen, Egiarretan eta Zuhatzun grabatu zen agorriala akaberan eta iraila hasieran. Bideoklipen makina bat arakildar eta irurtzundar agertzen dira moztaroenekin eta kantari.

Bideokliparen egileak Itziar Matxain, Xabier Unanua, Aritz Viñas eta Aritz Gorostiaga. Hamaika Aldiz taldearen kantuari irudi ederrak jartzeaz arduratu dira. Musikariek, berriz, Julio Soto bertsolariaren letra kantu bihurtzeaz arduratu dira.

## Ziordia

## Hildako adina haritz

Igandean, Ziordiko udalak antolatutako Memoria Hilabetearen azkeneko ekitaldia ospatu zen

Testua: Jon Otermin Benito

Hilabete mugitua izan dute ziordiarrek. Muralak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak, etab. Hau guztia herriak Memoria Historikoaren Legea betetzen ez zuelako. Ohartu bezain pronto, udal taldea lanean jarri eta gerra zibilean hildako 13 herritarrei buruzko informazioa bilatzen hasi zen. Gertakua argitu ondoren, Memoria Hilabetea prestatu zuten, ziordiarrek egoeran jartzeko nahian. Ekitaldi sorta despeditzeko, udalak 13 haritz landatu zituen hildakoen omenez. Baina ez zituzten ahaztu preso edo kontzentrazio eremutan egon zirenak, hondasunak lapurtu zizkietenak eta umiliatu zituzten emakumeak.

Eguerdi aldera, ziordiarrek udaletxera gerturatzen hasi ziren. Bertan, udalak pleno berezia prestatuta zeukan. Helburua, 1936ko estatu kolpeko gertakariak salatu eta hildako herritarrak ondraztea. Hasteko, bozeramaileek Nafarroan gerra zibilean zehar pairatutako errepresio "bortitza" aipatu

zuten. Izan ere, nahiz eta frontetik ez egon, 3.000 pertsona baino gehiago fusilatutak eta desagertutak izan ziren. Gainera, kolpisten aurka eta gizarte libre baten alde borrokatu zutenen duintasuna goraiatua izan zen.

Dozenaka herritarren aurrean, zinegotziek antolatutako ekintza multzoen zergatiak sakonki azaldu zituzten. "Ziordiko udalak hilabete honetan antolatutako ekimenen bidez memoria historikoarekiko hurbilketa bilatu nahi zuten", baieztatu zuen Olatz Irizar zinegotziak. Memoria berreskuratzeko ariketatzat jo zuten. Biktimek "egiarako, justiziarako eta errepaziorako" duten eskubidea berreskuratzeko, hain zuzen ere. Omenaldian Hezkuntza kontseilari Jose Luis Mendoza, Nafarroako Parlamentuko lehendakariorde Unai Uhalde, EH Bilduko David Anaut parlamentaria eta Sakana-ko udal ordezkariak izan ziren.

## Memoriarako parkea

Biktimen aitortze instituzionala burutzeko, autobia azpiko pasabide parean dagoen parkeari Memoria Historikoko Parkea izendape-



Ziordiarrek haritzak landatzen, "hamairuak" gogorarazteko.



Dantzariak, Memoria Historikoko parkearen eskulturaren aldamenean.

na eman dio udalak. Han 13 haritzak landatuko zituzten, baita eskultura eta plaka bat ipini ere. Gainera, hildako bi herriko alkateta eta zinegotzi bat zirela kontuan hartuz, udaletxean beste plaka bat jarriko da hurrengo hilabetean. Bukatzeko, eta txaloen artean, senideek arrosa sortak hartu zituzten, ondoren haritzen sustraien alboan uzteko.

Hitzaldia despeditu eta gero, lekukoak parkera abiatu ziren. Hantxe, landaketa hasi baino lehen Lur Larraza eta Luisillo Kalandra-ka musikariek bi abesti eskaini zituzten, non Franco eta haren aldekoen eskutik jasotako errepresioa salatzen zuten. Berriz ere, herrikideen txaloen artean, familia bakoitzak haritz bana landatu zuten. Adin guztietako senide eta ondorengoak ikusi zitezkeen. Ekitaldiarekin bukatzeko, 13 dantzari aureskua dantzatu zuten eta eskulturari estalkia kendu zioten. Bertan, hildakoen izen-abizenak irakurri daitezke, baita omenaldiaren arrazoiak ere. Emozio gosea ase, bazkalordua gertu zen eta udalak mokadu jatea prestatu zuen gerturatu ziren guztiendako.

## Balorazioa

Edurne Kasasek eta Olatz Irizarrek urrian zehar ikusitakoaz balorazio positiboa egin zuten. "Gaiari buruz ez zen hitz egiten eta hori lortu dugu" azaldu du Irizarrek. Jende "mordoa" etorri iza-

nak bide onean daudela frogatu zuten. "13 pertsona asko dira. Alde batetik, espero genuen erantzuna baina, bestetik, zerbait antolatzen duzunean beldurra daukazu", ziurtatu zuen Irizarrek. Etorkizunean zerbait gehiago antolatzea ez dute baztertzen.

Gainera, ekitaldi ezberdinetan parte hartu zuten Toti Martinez de Lezeari, Pako Etxeberriri eta Jose Mari Esparzari eskerrak eman zizkieten. Ezeren gainetik, haiek aurkeztutako borondatea azpimarratu zuten.

## Hamahiruak

## Estatu kolpean hildakoak

Juan Agirre Pozueta  
Domingo San Roman Otsoa  
Francisco San Roman Otsoa  
Juan Migel Otsoa Beinaran  
Martin Elso Latasa

## Errepublikaren aldeko frontean hilak

Fernando Agirre Arregi  
Pedro Agirre Pozueta  
Ramon Goikoetxea Etxeberria  
Epifanio Gonzalez Villar  
Celestino Otsoa Martinez  
Gregorio Otsoa Martinez  
Marcelino Zabaleta Goia  
Espetxean hila, Madrilen  
Pablo Ramirez Sancho

## Hyundai Tucson berria

Aldatzea jarrera bat da



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirrargarriak aurkitzen laguntzen digu. Iru-dimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoez, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea [www.hyundai.es-en](http://www.hyundai.es-en)

 NEW THINKING.  
NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.  
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



Tucson 1.6 GDI (131CV) 4X2 BD ESSENCE (18.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gubernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A. ren bidez finantzatzeko duten bezeroendako izango da, gutxienez 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxienezko epea izango duena. Finantzaio entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2016/01/31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modelo: Tucson Style. Kotxearen finantzazioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantentzen argibideak Hyundai konzesionarioetan edo [hyundai.es-en](http://hyundai.es-en).

Gama Hyundai Tucson: CO<sub>2</sub> (gr/km) isurtzea: 119-175.  
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

**SAKANA**

## Patata operazioa ate joka

**Igandean, 9:15etik aurrera, Urdiain eta Satrustegi artean egingen da bilketa**

54. Patata Operazioa antolatatu dute iganderako Iruñeko Alegria peñako kideek, 15 batek. Hiriburuko Hermanitas de los Pobres-en egoitzarendako jaki bilketa egingen dute. Patata Operazioko segizioa mojen furgonetak, Abaigar erakuntza enpresako kamioia eta peñakideen bizpahiru autok osatuko dute. Bilketa Urdiainen hasi-

ko dute, 9:15ean, herriz herriko bideari heltzeko gero. Euren presentzia iragartzeko ibilgailuen bozina jo eta Patata Operazioa behin eta berriz errepikatuko dute. Behin Arbizura iritsira Unanura joanen dira, estreinakoz, joan zen urtean sei patata zaku eman baitzizkieten. Ondoren ibilbideak Satrustegira arte segituko du. Patatez aparte kuiak, kuiatxoak, babarrunak, sagarrak, intxaurrek eta dirua jaso zituzten.



Iruñeko Alegria peñako kideak gurean patatak biltzen.

**Arakil**

## Haurrei eskainitako eguna

**Larunbatean, 16:30etik aurrera, Izurdiagako elkarteak**

Arakilgo Udalak udazkenerako antolatutako agenda dago bihar-ko Haurren eguna. Izurdiagako elkar-tea izanen da jarduerak hartuko dituen tokia. Hasteko eta behin, 16:30ean, Arakilgo txikiek eskulan tailerrean parte hartzeko aukera izanen dute. Hura despedituta, 18:00ean, ipuin kontalari baten kontakizunarekin gozatzeko aukera izanen dute. Arratsaldean 19:00etako txokolate janak gozatu-ko du. Hura dastatu ondoren, arakildarrak eta irurtzunda-

rrak protagonista dituen Euskaraz 365 egun bidea ikusteko aukera izanen da.

**Espeleologia**

Arakilgo udazkeneko agendak gazteei zuzendutako jarduerak iragarria du hilaren 19rako: espeleologia. Autobusa 9:00etan abiatuko litzateke gazte arakildarrak Urbasako Lamiatutur kobazulora eramateko. 10:00etatik 13:00etara koban izanen dira espeleologia ezagutzak hartzen. 13:30ean Urbasako kanpinean bazkaldu eta etxerako buelta 17:30ean izanen da.



Arakildar gaztetxoak gozaten.

Izena eman nahi duenak udal-letxean egin dezake, 948500101 telefonora hots eginez. Arakilen erroldatutakoek 20 euro ordaindu

beharko dituzte, erroldatu gabe daudenak, berriz, 25. Prezio horretan guztia barne dago. Hilaren 15era arte eman daiteke izena.

**Irurtzun**

## Gazteak, euren egunaren jabe



Irurtzongo gazteak herri-bazkarian.

**Zortzi ehun lagun baino gehiago bildu ziren larunbateko kontzertuetan**

Testua: Maialen Huarte Arano

Las tipex taldeak ireki zuten Irurtzunen ospatutako Gazte Egune-ko jaialdia. Giroa berotuta, dan-

tzarako tarte handia izan zen gero. Gozategik jarri zuen erritmoa lehenbizi, Los Zopilotes Txirrius taldeak gero eta Trikiziorekin despeditu zen gaua. Giro paregabea izan zen. Alde txarrik izan bazen, musikaren aldetik etorri zen. Frontoiak eragindako oihartzun handiak eraginda edo, nahasi egiten ziren soinuak.

Parranda ez ezik, Barazki Gunen bazkaldu zuten. Arratsaldean, txarangarekin herrian bar- na ibili ziren euren eguna ospatzen. Irurtzun eta Arakilgo gazte- ek antolatu dute hirugarrenez

gazte eguna, "autogestioaz, sormen- naz eta batez ere ilusioz antolatu- tako" eguna, oraingoan ere arra- kasta handia izan du.

**Bi eguneko gazte algara**

Larunbatean izan zen egun handia, baina ostiralean ere munta- keta egin ostean afaltzen elkartu ziren hainbat lagun. Ekia talde- aren kontzertu akustikoa izan zuten gero eta egun handirako azken prestaketak egin zituzten. Larun- bat goizean elkartu eta bazkaria egiten aritu ziren Irurtzun eta Arakilgo zenbait gazte. Besteek, mus txapelketarako eta txapel jaurtiketarako behar zirenak anto- latzen aritu ziren.

## Azoka bizia

**Igande goiz guztian jende pasa etengabea izan zen Irurtzongo Foru plazan**

Arropa eta liburuak. Azken edizioetan hori da gehien saltzen dena Irurtzongo bigarren eskuko azokan. Hala ere, arropa eta liburu asko saldu behar dira 1.400 eurora iristeko. Izan ere, azokako salgai gehienak euro bakarrean erosi zitezkeen. Haurrendako aukitxo bat izan zen produktu gares-



tiena, 30 eurotan. Igandean lortu- tako diruari larunbateko herri bazkarian jasoko dena gehitu beharko zaio.

Hori guztia Solidaridad Navarra con Guinea Ecuatorial, Sonage, elkarteari emanen dio Itxipuruk. Taldekoek Sogane koei esker ona azaldu zieten: "jende askok parte hartu zuen, laguntza handia eman zuten muntaian eta salmen- tan, informazio guinea jarri zuten". Sogane elkarteak Ekuatore Ginea- ko bi umezurtzegi laguntzen ditu (Malabon eta Nkuen), han dauden haurrak eta gazteei ingurune eta etorkizun hobea eskaini asmoz.

**Burunda**

## Dirua aurrezteko formula

**Aurrezkiari eta kontsumoari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.**

Horien bidez, "gure kontsumitzeko erari buruzko hausnarketa egin, baita familiako ekonomia kudeake- ta aztertu eta fakturretan murrizte- ko praktikak" erakutsiko dituzte. Hau da, dirua aurrezteko gakoak azal- du nahi dituzte. Mankomunitateak urtero antolatzen du halako jardun- aldiren bat, Nafarroako Gobernu- aren laguntzaz izaten da. Parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.

**Egutegia**

**Azaroak 7, astelehena**  
18:30tik 20:30era Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Azaroak 8, asteartea**  
18:30tik 20:30era Ziordiko udaletxean.

**Azaroak 10, osteguna**  
18:30tik 20:30era Olatzagutiko kultur etxean.

**Bakaiku**

## Elkarteko bazkideen eguna

**Larunbatean, 12:00etatik aurrera**

Bakarreko Etxea elkarteak bihar egun handia izanen du, bazkideei eskainitakoa hain zuzen ere. Horregatik, elkarteaz aparte herrian ere sumatuko da animazioa.

**Egitaraua**

**10:30ean** Mural margotzea Maider Urretabizkaia artistarekin, frontoian.  
**12:00etan** Pilota partidak.  
**12:30ean** Haurrendako puzgarriak.  
**13:30ean** Bermuta, herriko musikariek giroturik.  
**14:30ean** Bazkaria.  
Ondoren Musa, bingoa, karaokea.  
**19:30ean** Auzatea.  
**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Trikidentz taldearekin.  
**00:00etatik 1:30era** Dantzaldia Trikidentz taldearekin.

**Arbizu**

## Gazte eguna, eta bezpera

Arbizuko Gazte Asanbladak bihar-ko antolatu du Gazte eguna. Baina haren sarrera gisa gaurko ere bada ekitaldirik. Haietan parte hartzeko deia egin diete gazteei.

**Egitaraua**

**Azaroak 4, ostiela**  
**17:30ean** Haurrendako pelikula ta txokolate-jana.  
**20:00etan** Denok kontzentziora. Euskal presoak Euskal Herrira.  
**20:30ean** Pintxopote berezia.  
**22:30ean** Dokumentala: Izarren argia.

**Azaroak 5, launbeta**  
**11:00etan** Txupinazua.  
**11:30ean** Ping-pong o biri-biri txapelketa.  
**12:30ean** Gosaya.  
**13:30ean** Triki-poteua.  
**15:00etan** Bazkaya.  
**18:00etan** Argi-gurdiya herriyen zehar.  
**20:00etan** Kontzentra eta bokata-jana.  
**23:00etan** Kontzertubek: The Friday's Crew, SLD eta Jo ta Txo dj.

## » Irañeta

# Zulo puska kale nagusian

**Kale Nagusiaren 1. zenbakiaren ondoan porlanezko zorua hondatuta zegoela, beheara egin zuela ikusita, Irañetako Udalak hura konpontzea erabaki zuen**

Konpontzeko pikatzen hasi eta lau metro karratuko zuloa sortu zen bat-batean. Zuloak agerian utzi zuen kalte guztiaren eragilea: Irañeta hegoaldeko iparraldera lurpetik zeharkatzen duen Basokoe-txea erreka kanalizatua.

Juan Angel Beraza alkateak azaldu digunez, ur biltegian soberan dagoen ura da errekaaren emaria. "Toki horretan erreka bihurtu egiten du. Neguan, emari handiarekin, erreka harriak eta beste ekartzen ditu. Harriek zimenduen kontra indarrez jotzen dute". Eta zimenduak kaltetuta tunelaren bobeda ahuldu eta horrek kaleko zorua beheara egitea eragin zuen. Ez hori bakarrik. Zimenduak kaltetuak egotean urak paretaz bestaldeko lurra eramaten hasi zen. Zuloak hornidura sareak eta beste age-

rian utzi ditu. "Segituz gero etxearen zimenduak kaltetuko zituen".

Berazak argitu digunez, garai batean erreka herri erditik pasatzen zen eta hainbat harrizko zubi zeuden herrian barna. "1924an zubi berri bat egiteko gobernuari diru eskaera egin zion udalak". Erreka lurpean uzteko lanak ondorengoak dira, beraz. Alkateak argitu digunez, "zubiak mantendu zituzten eta zubi eta zubi artean porlanez egina dago tunela".

## Premiazko konponketa

"Euria egin aurretik konpondu beharra dago, bestela ezin da lan egin". Halaxe jakinarazi digu Berazak. Eta horretan ari da udala. Nafarroako Gobernuarekin ere harremanetan da, diru-laguntza eskatzeko aukera aztertuz. Gaur Toki Administrazio Departamentuko teknikari bat izan da Irañetan egoera aztertzen. "Soilik premia duten lanak diruz laguntzen



Lurra pikatzen hasi bezain pronto lau metro karratuko zuloa sortu zen.

dituzte", jakinarazi digu alkateak.

Ezusteko zuloaren ondoren erreka herrian lurpean egiten duen bidean tunela nola dagoen azter-

tzen egon dira udaleko kideak.

"Ongi dago". Dauden zulotxoak heldu den urteko udan porlanez konpontzeko asmoa du udalak.

## Irañeta markesina



Autobusaren zain egoteko erai-kinak egurrezko eskailerak zituen. Baina oso egoera txarrean zeuden, solte. Irintarrak markesina auzolanean berritzen ari dira. Eskailerak kendu dituzte. Alkateak hurrengo zereginak azaldu dizkigu: "autobus erabil-tzaile gehienak adinekoak direnez, lurraren arrasean geldituko da. Pixka bat gorago. Barruan porlanezko bankua eginen dugu. Hura eta bizkarraldea eskailetatik kendutako zurarekin estaliko ditugu".

## » Irurtzun / Altsasu

## Garapenerako lankidetzak proiektuetarako laguntzak emateko deialdiak



Diru-laguntzekin Cinquerako eskolak (El Salvador) lagundu dira.

Irurtzongo eta Altsasuko udalek nazioarteko garapen proiektuak laguntzeko diru-laguntza deialdia egin dute, nork berea. Deialdien helburua da laguntza ekonomikoa ematea Hirugarren Munduko herrialdeekin lankidetzak proiektuak egitea eta, horiekin batera, irurtzundarrak eta altsasuarrak sentsibilizatzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduerak, bide emanez jarrerak eta

jokabideak aldatzeko iparraren eta hegoaren arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalen arazoaren inguruan.

Irurtzongo Udalak 13.206 euro bideratuko ditu horretarako eta Altsasukoak, berriz, 3.400. Interesa duten erakundeek 30 eguneko epea dute euren proposamenak dagokion udaletxean aurkezteko. Bi udalen web orrietan izanen da informazioa.

## » Irurtzun

## Hilerrri irisgarria

**Domu santu egunaren aurretik Irurtzongo Udalak herritarrei jakinarazi zien hilerrrian ate berri bat zabaldu zela**

Erga kaleko ohiko atez aparte, hilerrriaren mendebaldeko paretan beste ate bat zabaldu du udalak. Ate berriarekin hilerrrian sartzeko arkitektura oztupoak inorendako traba ez izatea lortu nahi izan da.



## » Arbizu

## Lantegia arriskuan jarri zezakeen lur mugimendua kontrolatuta

Industrialdearen hirugarren eta azken zatia egiterakoan, 2011n, berde gunea, dotazioetarako tokia eta zegokion berde gunea iparraldean, Lizarragabengoa aldera, jar-tzea erabaki zuen udalak. Industrialderen zati batean enpresa bat ezarri ondoren, udala konturatu zen berdegunearen aldameneko lurra aldameneko larrera irrist egiten ari zela.

Larreetan ez zuen kalte handirik sortu, baina udalak kezka zuen: lurra beheara egiten segituz gero ondoko lantegiko zimenduei eragin egin ziezaiokeen. Udalak geoteknia enpresa bat kontratatu zuen eta joan den urtean euste drainatzea egin zuten. Karnele Maraño Chasco alkateak azaldu digunez, premia lanen segida joan den astean despeditu zen: "haitzeraino iristen diren porlanezko piloteak egin dira. Pilote



Lur mugimendua 4x4 probak egiten diren inguruan izan dira.

horien gainean harri-lubeta egin da. Lur mugimendua eragozteko ura ere egoki bideratu da.

Alkateak azaldu digunez, joan den urtean 30.000 euro bideratu zituzten lan horietarako. Aurten 197.500 euro izanen dira. Inbertsioaren tamaina handia zenez eta uda-

lak horri guztiari erantzun ezin zioenez, Nafarroako Gobernuari diru-laguntza eskatu zion udalak. Herenegungo bilkurak gobernuak Arbizuko Udalarri %80ko diru-laguntza ematea erabaki zuen. Ezohiko kreditua emateko Foru Legea onartu du gobernuak.

**nc**  
**nerea cenoz**  
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com  
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan  
Estafeta 16, atzea · Lakuntza  
(Bostekoa masaje zentroan)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

**Kaixo**  
Kafetegia · Jatetxea

JATETXEA · RESTAURANTE · KAIKO · BAR · CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
www.restaurantekaixo.com

## SAKANA

## Biomasa, energia autohornikuntzarako proposamena

**Udalek biomasa bideragarritasun analisiak jaso dituzte eta berokuntza egurrarekin egiteko gonbidapena jaso dute**

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) biomasa jardunaldia antolatuzuen atzo. SGAk ibarreko bertako egurrak energia baliabide gisa duen balioa nabarmendu zuen. Eta jardunaldia hartzeko toki egokia aukeratu zuen: Arakilgo udaletxea. Arakilgo Udalak joan den urte bukaeran gasifikazio egur galdara jarri zuen. Orduz geroztik Arakilgo basoetako egurrarekin berotzen dute eraikina.

SGAko energia eta industria arduradun Aintzane Iriberrri Berrostegetak azaldu digunez, jardunaldiaren helburuaz "gure baliabideek duten ahalmenaz sentibilizatzea. Eta pausoak emateko aholkuak eskaintzea". Udalek gaiaren inguruko informaziorik ez zutela sumatuta antolatu zuten jardunaldia, eta adibideen bidez "funtzionatzen duela" erakutsi nahi izan zuten. Arakilgo udaletxearen adibidera joz, Iriberrri azaldu digunez, "izan duten arazo handiena udalaren plangintzan egurra moztea, kudeatzea, eta galdara egurrez elikatzea izan da". Hori plangintzan sartuta normal funtzionatzen duela ikusi zuten jardunaldian izan zirenek.

### Bideragarritasun analisia

Atzoko jardunaldian izan ziren udal ordezkari guztiak euren udalerriko biomasa bideragarritasun analisiarekin bueltatu ziren etxera. SGAk egindako analisi horretan herri bakoitzaren baso plana kontuan hartuta, energia potentziala zein den zehaztu dute. Egon litez-



Urdiango basoan moztutako pago-enborrak.

keen egur tonen arabera kalkuluak egin dituzte. Horretaz aparte, herri bakoitzeko udal eraikinetan dauden berokuntzarako galdara motak zerrendatu eta zein erregai erabiltzen duten zerrendatu dute. Horiek kontuan izanik egin dituzte biomasa bideragarritasun analisiak, ibarreko energia planaren barruan kokatzen direnak.

Iriberrri azaldu digunez, Sakanan "potentziala oso handia da". Horregatik, udalei euren burua erregaiz auto-hornitzeko proposamena egin diete, hau da, berokuntza sistemetan egurra erabil dezatela. "Sakanan arazo handiena da gasa eta gasolioa ordaindu behar direla. Erregaia, egurra, zurea

bada merkeago aterako zaizu eta gutxiago kutsatuko duzu. Arakilgo udaletxeko aurreko galdarak D energia ziurtagiria zuen eta berriak A du. Horrela, berotegi efektuaren kontra ere egiten da".

Biomasaren aprobeixamendua erekin hasteko, eta Arakilgo Udalaren ereduari segituz, SGAk epe motzera jardueraz errazak, "aurrekontu txikikoak" proposatu dizkie udalei. Baina beti "energia burujabetza" helburu dutenak. Iriberrri azaldu digunez, "ez gara erakuntzen berrikuntzan sartzen. Egurrarekin edo ezpalekin dabil-tzan galdara jartzea proposatu dugu. Oso ongi funtzionatzen dute eta zure egurra, zure baliabideak

erabiltzeko aukera ematen dute".

### Adibideak

Jardunaldian Arakilgo udaletxearen adibideaz aparte, Berako Udalarena ezagutu zuten. Ultzaman bezala, berokuntza galdara bakar baten bidez bero sarea sortu eta bizpahiru udal eraikin berotzen dituzte. Udalek atzo jasotako analisian bero sareak sortzeko aukera jasotzen da, Arbizun eta Altsasun, esaterako, halako sareak sortzeko aukera legokeela esan digu Iriberrri. Ibarreko bi enpresek, Lur Geroak eta Orleghy Renobalesek, egurraren potentzialtasunari eta galdara ereduie buruzko azalpenak eman zituzten.

## SAKANA



### Ennecotik auzolanerako deia

**Larunbatean, 9:00etatik 14:00etara, Etxarriko Danbolintxulo dermionan**

Nafarroa Bizirik fundazioak sustatzen duen Enneco, haritzaren memoria pixkanaka itxura hartzen ari da. Garilean aurreneko harri jarri zetik Euskal Herri guztitik etorritako makina bat boluntario aritu dira auzolanerako. Azaroan parkean barna informazio panelak jartzeko asmoa du fundazioak. Aurreikuspenen arabera martxoaroko jolas gune ko estalpea eraikita egon da. Hori horrela izateko, estalpea eraikikoden tokian zulatu egin behar da. Lan hori lehenbailehen despiditu beharra dagoenez, fundaziotik auzolanerako deia luzatu digute sakandarrei larunbaterako: "giro ederrean, auzolan handi bat egitea da gure helburua". Gosaria, norik berea eraman beharko du.

### Parte hartzeko

Hots egin 676 865 239 telefonora edo idatziripsimakar@hotmail.com e-postara. Karlos da auzolanen arduraduna.

### Gaur liburutegiak itxita

**Nafarroako Liburuzainen Elkarteak, Asnabik, Nafarroako Gobernuarekin batera liburuzainendako prestakuntza jardunaldia antolatu du gaurko**

Aurreneko aldia da bi erakundeak elkarrekin halakorik antolatzen dutela. Jardunaldia dela eta, Liburutegi Sareko kide diren liburutegiak itxi egingen dute gaur. Asnabiren laugarren prestakuntza jardunaldien izenburua hauxe da: bildumaren ingurune gatazkatsuak: zentsura, autozentsura eta politikoki zuzena XXI. mendeko liburutegietan.

Analisirako elementuak eman nahi zaizkie liburuzainei. Etika arloko gaien inguruan ariko dira: ustezko zientzia edo mirari dietei buruzko liburutegian egon behar du? Erljio proselitismoa egiten dutenekin zer? Erotismoaren eta pornografiaren mugak zein dira? Eta adierazpen askatasunaren eta blasfemiaren artekoak? "Gaurkotasuneko gaiak, gero eta kultura anitzagoak diren eta balio definiturik ez duten gizarteetan".



### Altsasu



Auzokideak bilkura egin zuten herenegun. UTZITAKOIA

### Beilatokiaren kokapen egokiagoaren alde antolatuta

Alde Zaharreko Gurutze Santua kaleko 6. zenbakian beilatokia aurki jartzeko asmoa dago. Albitseak hainbat auzokideren artean kezka eta arbuioa sortu du. Eta azkenean taldea eratu da. Herenegun egin zuten aurreneko batzarra eta 30en bat pertsona elkartu ziren. Lehen erabakia hartu zuten: sinadura bilketa abiatzea. Orriak dagoeneko Altsasuko establezimenduetan barna banatzen hasi dira.

Beilatokiaren kontra ez daudela argi adierazi dute Alde Zaharreko auzokide horiek. "Kokapen egokiagoa bilatzea nahi dugu".

Argudiatu dutenez, gaur egun proposatzen den kokapena "maitatutako pertsonendako ez da toki lasaia". Gaineratu dutenez, ez dago aparkalekurik, ezta lasaitzeko, hitz egiteko gunerik... Azkenik, "kokapen horrek auzokideen egunerokotasuna baldintzatzen" duela nabarmendu dute.

### Deklarazioak, eta salaketa

Ferietako liskarra dela eta Guardia Civilak identifikatu zituen sei pertsonak euren borondatez epaitegira joan ziren ostiralean. Iruñeko 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegian deklaratu zuten. Asmo horrekin joan ziren bi egun lehenago, baina epailea ez zegoen zaintza txandan. Auzia Iruñeko epaitegiak edo Espainiako Auzitegi Nazionalak epaituko duen oraindik ez da argitu.

### Heriotza mehatxua

Bestalde, ostegunean, Javier Ollo alkateak heriotza mehatxu mezua jaso zuen udalaren web orriaren bitartez. Ferietako liskarrarekin lotu zuen mehatxua alkateak eta eskuin muturraren itzala ikusi du haren atzean. "Lastailaren 15ean gertatutako guztia handitu eta manipulatu da, udal adierazpena barne". Mezuagatik Foruzaingoan salaketa aurkeztu zuen alkateak. Bestalde, alkateak jakinarazi zuen Koxka tabernan ere mehatxuko dei ugari jaso dituztela.



### Instrukzioa?

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusitik jakinarazi digutenez, oraindik ez dakite non instruituko den ferietako liskarreko auzia. Espainiako Auzitegi Nazionalako 3. zenbakiko Instrukzio Epaitegiako Carmen Lamela Diaz epaileak beretako eskatu du auzia, terrorismo delitua ikusten duelako. Horregatik, Iruñeko 3. zenbakiko Instrukzio Epaitegi egindako diligentiak eskatu dizkio. Baina, aldi berean, azken epaitegi horretako epaile Maria Paz Benitok gauza bera eskatu dio Lamela epaileari. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusitik azaldu digutenez, Madrildik eskatutako informazioa jasotzeko zain daude.



## SAKANA

# Bederatzi hilabetetan 122 langabe gutxiago

**Oporrekin langabeziaren jaitsiera moteldu egin da. Garagarzaroaren akaberan 1.029 langabe zeuden Sakanan, irail akaberan, berriz, 1.130**

Urteko bederatzi hilabete pasa ondoren, Sakanan langabezia %9,74 jaitsi da. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) arabera ilbeltzaren batean baino 122 langabe gutxiago zeuden irailaren akaberan ibarrean. Joan den urteko iraila akaberarekin alderatuta, 104 sakandar gutxiago daude Nafar Lansareren zerrendan. Bederatzi hilabete horietan enplegua lortu duten 122 sakandarretatik 120 gizonetako dira (%98,36) eta beste biak emakumezkoak (%1,64). Urte erdira arteko datuetan generoen arteko aldea handia zen ere, bost kontratatuetatik lau gizonetakoak izan ziren, orain aldea izugarri handitua. Adinari dagokionez, 25 urte bitarteko gazteen tartea da iraila bitartean hazi den bakarra, 11 langabe gehiago (%9,02). Kontratatuetatik 75ek (%61,48) 45 urte edo gehiago dituzte eta 58k (%47,54) 25 eta 44 urte artean dituzte.

Urteko aurreneko bederatzi hilabeteetan kontratazioei erreparatuta aipatzekoa da altsasuarrak %63,93 direla. Olaztiarren sinadura duten kontratuak %11,48 izan dira iraila bitartean. Arbizuar eta urdindar kopuru berak utzi du langabezia, %8,2k. Atzetik kopuru txikiagoak heldu dira: %5,74 uhar-tearrak, %4,1 lakuntzarrak, %3,28 ergoendarrak, %2,46 arbazuarrak eta iturmendiarrak. Bestaldean daude hiru hilekoen ondoren langabezia igo den hiru herriak: Irurtzun eta Ziordia (6 gehiago) eta Bakaiku (2 gehiago). Irañeta langabe kopuru bera zuten ilbeltz hasieran eta irail akaberan.

## Iraila

Urte hasieratik langabeziak Sakanan beherako joera izan du.

Baxuen garil akaberan egon zen, 1.088 sakandar lan bila. Baina oporraldiarekin batera langabeen kopuruak 53an egin zuen gora agorrilean eta irailaren beherako joerari heldu dio berrirori. Irail akaberan 1.130 pertsona zeuden lan bila. Haietatik 699 (%61,86) emakumezkoak ziren eta gainontzeko 431k (%38,14) gizonetakoak. Gero eta nabarmenago, berrirori ere, langabezia emakume aurpegia hartzen ari da. Irailaren ibarreko langabeak Nafarroako langabeziaren %2,88 ziren, populazioa %3,17 gara.

Adinari dagokionez, iraila akaberan lan bila zeudenen erdiak, 557 (%49,29) 45 urte edo gehiago zituen. Adin tartetan langabe kopuru handien zuen hurrengoa 25 eta 44 urte artekoa zen: 446 (%39,47). Azkenik, 25 urte azpiko langabeak 127 ziren (%11,24). Sektoreei dagokionez, lan eskatzaile gehienek, %62,83 (710) zerbitzutan aritu nahi lukete. Industrian, berriz, %22,57 (255); eraikuntzan %5,04 (57) eta lehen sektorean %2,21 (25). Aurretik enplegurik izan ez eta lan bila zebiltzanak irailan %7,23 ziren (83).

## Kontratazioak

Iraila bitartean sakandarrek 5.948 kontratu sinatu dituzte. Gizonetako sinadura %51,55ek dute (3.066) eta emakumezkoenak %48,45ek (2.882). Kontratazio kopuruaren generoen arteko alderik apenasez bada goere, irailan 10 langabetutik 6 emakumezkoak ziren, haiek behin-behineko kontratu gehiago sinatzen baitituzte. Urteko aurreneko bederatzi hilabeteetan sinatutako kontratu motei dagokionez, ugariena hasieratik aldi baterako kontratua da: %94,03



Lastailan Altsasuko enplegu bulegoan %1,25 egin du behera langabeziak, 12 pertsona gutxiago zerrendan.

Langabeziaren bilakaera	Guztira 2016-01-01	Guztira 2016-09-30	Sakanako langabeziaren %	Aldea urte hasierarekin
Altsasu	619	541	47,88	-78
Arakil	40	39	3,45	-1
Arbizu	54	44	3,89	-10
Arruazu	5	2	0,18	-3
Bakaiku	13	15	1,33	2
Ergoiena	11	7	0,62	-4
Etxari Aranatz	123	122	10,80	-1
Irañeta	7	7	0,62	0
Irurtzun	149	155	13,72	6
Iturmendi	19	16	1,42	-3
Lakuntza	48	43	3,81	-5
Olatzagutia	96	82	7,26	-14
Uhartea Arakil	37	30	2,65	-7
Urdiain	22	12	1,06	-10
Ziordia	9	15	1,33	6
Sakana	1.252	1.130	100	-122
Nafarroa	43.143	39.282		-3.861

(5.593). Iraila bitartean mugagabe bihurtu diren kontratuak %3,28 (195) izan dira. Azkenik, hasieratik mugagabeko kontratuak daude, %2,69 (160). Bederatzi hilabete horietan zerbitzuen sektorean sinatu dira kontratu erdiak, %52,76 (3.138). Atzetik, industria %42,89 (2.551), eraikuntza %3,6 (214) eta lehensektorea %0,76 (45) heldu dira. Martxoan izan ezik (industria), zerbitzuen sektorea izan da kontratazio gehien egin dituen, erdia eta gehiago. Bestalde, iraila bitartean Sakanan sinatutako 5.948 kontratuak Nafarroan garai berean sinatutako 268.367 kontratuen %2,22 dira.



## Sakanako Gida, etxeratzen

**Aste honetan hasi eta hurrengo bietan Sakanako Gidaren ale bana ibarreko buzoia guztietara iritsiko da. Ibarreko zerbitzu eta establezimenduen berri jasotzen du, baita sarean ere: [www.guaixe.eus/gida](http://www.guaixe.eus/gida)**

Hirugarren urtean Sakanako zerbitzuen eta establezimenduen berri ematen duen gida argitaratu du Guaixefundazioak. Sakanako Gidaren 8.500 aleak ibarreko etxe guztietan eta han agertzen diren bezeroen egoitzetara ere banatzen hasi dira aste honetan. Erabiltzaileek, ohienez, Sakanako dendei, zerbitzuei, enpresei eta autonomoei buruzko informazio osatua eta eguneratua opatuko du. Informazio praktikoa, eguneroko bizitzan baliagarria suerta daitekeena.

Sakanako Gida, bestalde, ibarrean dugun zerbitzu eskaintza zabalaren eta ugariaren berri emateko modua bada ere. Establezimendu asko eta askoren artean ehuntzen da Sakanako ekonomia sarea. Bertan erosiz ibarra egin, lanpostuak mantentzen lagundu eta Sakana bizi baten alde egiten da. Merkataritza sare osasuntsurik gabe herri bizirik ez baitago.

Hori ez da Guaixe fundazioak Sakanako ekonomia ehunari bultzada emateko egiten duen ekimen bakarra. BelexeGuaixe txartelak aurten lau urte bete ditu. Fundazioaren babesle diren 1.500 sakandarrek ibarreko 90 bat establezimendutan abantailak dituzte urte

guztian. Haiek baliatzeaz aparte, Sakanako euskarazko hedabideen alde egiten dute txartela eskuratzeko ekarpenarekin.

### Interneten

Hurrengo bi astetan Sakanako Gidaren paperezko bertsioa buzoian jasoko dugusakandarrok. Baina informazio hori, uneoro, [guaixe.eus/gida](http://guaixe.eus/gida) web helbidean ere eskuragarri dago. Beraz, Sakanako establezimenduen berri izan nahi edo haiekin harremanetan jartzeko modua nahi duenak, telefono mugikor, ordenagailu edo tableten bidez ere kontsulta dezake. Bai batean bai bestean gida sailka eta azpisailka antolatuta dago, bilaketa errazte aldera. Interneten-



Aurreko urteko Sakanako gida, buzoietan. Aurki hasiko dira berri banatzen.

### Harremanetarako

Sakanako Gidaren hurrengo edizioan edo [www.guaixe.eus/gida](http://www.guaixe.eus/gida) atarian sartu nahi dutenek 948 564 275 telefonora hots egin edo [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus) edo [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus) e-posta helbideetara idatz dezakete.

ko bertsioaren kasuan, establezimendu bakoitzak bere orria du eta han helbidea, telefonoa, e-posta eta haren web orriaren berri dago. Mapa batean haren kokapenaren berri ematen da ere.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

### Goizeder Azazeta Pelaez

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu, une latz hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei, Altsasuko herriari, eta, bereziki, Goizederren koadrilari egin duten guztiagatik.

**Goizederren familia**

### Jesus Irisarri Alonso

Agurrean ere irribarre goxo bat eskaini diguzu. Bejondeizula osaba!

**Garasatarrek**



### Hainbat aukera

Galdetu  
**948 564 275**



## Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza, 23-1 Altsasu • 948 564 275 • [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)



# guaixe.iragarkilaburrak.com

**1 HIGIEZINAK**

**2 TEKNOLOGIA**

**3 LANA/NEGOZIOAK**

**4 DENETARIK**

**5 IBILGAILUAK**

**6 HARREMANAK**

**7 AISIA/KIROLA**

**8 FAMILIA/ETXEA**

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**

**Astekarrian:** Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

**Higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

**Altsasun etxebizitza itsasia salgai.**  
300 m<sup>2</sup>. Jantzita. Tel 670 276 457  
Aintzane eta 600 495 243 Pello.

**LOKALAK**

**ALOKATU**

**Ergoienako Lizarragako Azi Iturri elkartearen alokairua** San Klemente festetan, azaroaren 18, 19 eta 20an. Enkantea: azaroaren 6an, igandean, eguerdiko 12:00etan, 800 eurotik hasiko da. Prezio bera eskeintzekotan, elkar-teko bazkideak lehentasuna izanen du.

**Opatutakoak/Galdutakoak**  
**OPATUTAKOAK**

**Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrakoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetako-

ak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

**GALDUTAKOAK**  
**Txaleko gorri bat.** Altsasuko Feria egunean, eliza parean, txaleku gorri bat galdu nuen, arratsalde. Topatuz gero, mesedez, deitu 688 867 336 telefonora. Urko 6 urte.

**Oharrak**  
**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrantea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.** Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdira-

ko dela adieraziz.  
**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com)

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

**Volkswageneko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa

ematera animatu dituzte.  
**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzazten:

<http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943 32 22 94

**Errefuxiatuendako material bilketa.** Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAK. Altsasun, Frontoi zeharbidetaren 14an udalal duen bajerian, astelehena eta ostiralean, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzan, udal-letxe estalopeko eskubiko atean, astearte eta ostiralean 17:00etatik 19:00etara.

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

**JAIOTZAK**

- Oier Ondarra Saralegi, urriaren 24an Lakuntzan.
- Anis eta Rayan Gelti Guerrouj, urriaren 25ean Lakuntzan.
- Xumai Ulaiar Gallo, urriaren 26an Urdiainen.
- Saioa Elizondo Ramos, azaroaren 1ean Altsasun.

**HERIOTZAK**

- Jesus Irisarri Alonso, urriaren 28an Altsasun.
- Luisa Gonzalez Cava, urriaren 28an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da.  
Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



## Otxoak irabazi eta Lazkozek eta Ansotegik galdu Guillermo Mazon

Asteartean Guillermo Mazon Memorialeko edo Nafarroako Gazteen Mailako Lau t'erdiko Txapelketetako jardunaldia jokatu zen Etxarrengo Aranburu pilotalekuan. Lehiatu ziren pilotari sakandarren artean, Otxoak irabazi egin zuen eta Lazkozek eta Ansotegik, aldiz, galdu.

Etxarrengo astearteko emaitzak

Uriz (Uhartea) **9** - Otxoa (Aldabide) **18**  
Roldan (Ardoi) **18** - Lazkoz (Aldabide) **7**  
Valentin (San Migel) **18** - Teres (Ardoi) **11**  
Arribillaga (Ardoi) **18** - Ansotegi (Aldabide) **9**



## Iñigo Aritza Pilota Txapelketan 2. jardunaldia jokoan

Igandean, 16:30ean, Iñigo Aritza ikastolako frontoian

Euskal pilota sustatzeko helburuarekin antolatzen du ikastolak Iñigo Aritza Pilota Txapelketa. Aurreko asteburuan ez zen jardunaldirik jokatu eta igandean, azaroaren 6an, jokatu da bigarren jardunaldia.

### 2. jardunaldia:

#### LH3

A TALDEA: Alejandro Lopez / Eneko Ganuza

#### B TALDEA:

Aiora Agirretxe / Asier Zubiria

#### C TALDEA:

Aser Navarro / Inhar Urteaga

#### LH4:

A TALDEA: Aimar Igoa / Oier Carabias  
Haizea San Roman / Ekia Andueza

#### B TALDEA:

Enaitz Gonzalez / Uxue Anguiano  
Hodei Ulaiar / Xabier Olaiz

#### LH5:

#### A TALDEA:

Oier Mitxelena / Asier Astiz  
Jon Aierbe / Alain Mendia

#### B TALDEA:

Peru Urteaga / Oihan Gartzia  
Kepa Amillano / Patxi Azpeitia

#### LH6:

#### A TALDEA:

Iker Agudelo / Oier Gartzia

#### B TALDEA:

Joseba Ortigosa / Eneko Andueza

#### DBH1

A TALDEA: Ander Goikoetxea / Irati Lumberras

#### B TALDEA:

Arkaitz Agirretxe / Aritz Sevilla

#### C TALDEA:

Aimar Lezea / Oihan Ginea

#### D TALDEA:

Jon Navarro / Ekiñe Fernandez

#### DBH2:

A TALDEA: Aritz Ulaiar / Jokin Senar  
B TALDEA: Unai Irigoien / Aitor Obejero

## Pilota

# Atean

**Ezkurdia Lau t'erdiko finalerdietatik kanpo geratu da, Oinatz Bengoetxeak 6 tantotan utzi eta gero**

Lau t'erdiko finalerdietarako sailkatzea zuten jokoa Joseba Ezkurdiak eta Oinatz Bengoetxeak. Labrit pilotalekua bete zela, lehia oso estu eta borrokatua espero zuten katedrak. Apustuak parean irten ziren eta ikusmina handia zen. Baina ez zen, inondik inora, aurreikusitakoa bete. Egun beneratzen txarra izan zuen Joseba Ezkurdiak. Ezinean aritu zen. Emaitza, gogorra: 22 eta 6 irabazi zion Bengoetxeak Ezkurdiari.

### Lotuta, ezinean

Esana zuen Ezkurdiak, Bengoetxea VI.aren kontra hasierak oso garrantzitsuak zirela eta adi egon beharko zuela. Baina larunbateko Ezkurdia ez zen azkenaldiko Ezkurdi izan. Ez zuen bere maila eman, inondik inora. Kateatuta jokatu zuen, kolpea askatu ezinik eta pilotari bere abiadura eman ezinik.

Horrela, partida hasi eta 7 eta 2 aurreratu zen Bengoetxea. Leitzarrak bi huts egin zituen segidan eta 7 eta 4koarekin Ezkurdiak partidaren sartuko zela uste zuten pilotazaleek, baina, tamalez, ez zen halakorik gertatu. Bengoetxea, zuzenean, 21 eta 4kora joan zen.

Gutziz lotuta zegoen aurkariaren aurrean, aparteko ezerezzu behar izan Bengoetxeak tantoak bere alde pilotatzeko, baina bere jokoa ongi garatu zuen; sakearekin ziur, gantxoarekin trebe eta kantxan aginduz, estrategia ongi ateratzen zela leitzarrari. Bengoetxeak oinak bilatu zizkion Ezkurdiari, bere bolea ekin eta arbizuarrak makurtzera behartuz. Gainera, Ezkurdiak erretoan ere pattal aritzen eta hainbat huts egin zituen.

Horri partida erdialdean gerrialdean nabaritutako ziztada gehitu behar izan zitzaion, ibiltzean ere oinazea zuela nabaritzen zaitzaio. Bengoetxea VI.a 21. tantora iritsizenean, bitanto egin zituen arbizuarrak, baina sakeko falta bat egin zuen segidan eta horrela despeditu zen partida, oso hotz, Labriten bildutako pilota zaleak gera-



Arbizuarrak ez zuen bere maila eman eta arazo fisikoekin bukatu zuen.

tu ziren bezala. Partida txarra egiteaz gain, arazo fisikoekin bukatu zuen arbizuarrak.

### Gainetik pasa zitzaion

"Gainetik pasa nau. Ez naiz eroso ibili eta ez dut pilota nahi bezala mugitu eta kokatu. Haserre nago, mina hasi denean burua ere partidatik joan zait. Ez dut sufritzen jakin. Gaurkoa bezalako egunek ikasteko balio dute" azaldu

zuen, partida bukaeran, Ezkurdiak. Aldiz, leitzarrak adierazi zuen "partida perfektua" atera zitzaioela eta pilota baxuak bilatzen saiatu zela, "Ezkurdiari mina egiteko". Ongi ateratzen zaitzaion plana.

Hortaz, finalerdien atean geratu da, beste behin, Joseba Ezkurdiak. Aimar Olaizolak, Oinatz Bengoetxeak, Jokin Altunak eta Mikel Urrutikoetxeak jokatuko dute Lau t'erdiko finalerdia.



# Urrezko domina Joanes Bakaikoarendako

**22 urtez azpiko IX. Munduko Esku Pilota Txapelketako binakako esku pilotako finala irabazi zuen etxarriarrak, Jorge Sanchez errioxarrekin batera**

Miarritzen 22 urtez azpiko 36 metroko Frontoiko IX. Munduko Esku Pilota Txapelketa jokatu zen asteburuan, selekzioen arteko txapelketa. Espainiako selekzioa izan da txapeladuna -3 urte eta brontze bat-, Frantziaren -urre eta zilar bana eta bi brontze- eta Mexikoren -hiru zilarrezko eta brontzezko bat- aurretik.



Bakaikoa galderak erantzuten.

Munduko 7 selekziok hartu zuten parte aipatu mundialean: Argentinak, Kubak, Mexikok, AEBek, Uruguai, Frantziak eta Espainiak. Espainiako selekzioak esku pilotako bi txapelketak irabazi zituen, buruz burukoa eta binakakoa baina erremintan paleta motzean irabazi zuen, eta hiru-garrena sailkatu zen paletalarruan.

### Joanes Bakaikoa

Espainiako selekzioarekin aritu

tako pilotarien artean Joanes Bakaikoa zegoen. Etxarriarra esku pilotako binakako txapelketan lehiatu zen, Jorge Sanchez errioxarrekin bikotea osatuta. Finalean Mexikoko Gonzalez eta Garcia izan zituzten aurkari eta 2 eta 0 (10 eta 1 eta 10 eta 1) irabazi zuten Bakaikoak eta Sanchezek. Nabarmenezkoa da goitik behera nagusitu zirela Bakaikoa eta Sanchez, eta Bakaikoaren dekadak eta gantxoak ikusgarriak izan zirela.

## Irristaketa

# Irristalari nafarrei harrera Iruñeko udaletxean

**Tartean zegoen Ioseba Fernandez Fernandez irristalari iturmendiarra**

Iruñeko Udalak, Joseba Asiron alkatea buruz zela, Nafarroako Irristaketa Federazioari harrera egin zion aurreko asteazkenean. Zehazki, uztailean Holandako Heerde hirian jokatu zuten Europako Txapelketetan eta irailean Txinako Nanjingen jokatu zuten Munduko Irristaketa Txapelketan aritu ziren irristalariak izan ziren bertan.

Irristalari nafarrek aipatu bi txapelketetatik 5 domina ekarri zituzten: Mundialean zilarrezko domina bat, eta Europako txapelketetatik bi urrezko domina eta zilarrezko eta brontzezko domina bana.



Iruñeko Udalak, Asiron alkate buru zela, harrera egin zien irristalariari, Ioseba Fernandezi tartean.

**Fernandezen hiru dominak** Omendutako irristalarien artean Ioseba Fernandez zegoen. Iturmendiarrak Mundialean zilarrezko domina lortu zuen 100 metro sprinteko proban eta Europako

Txapelketetan urrezko domina lortu zuen 100 metro sprinteko senior mailako proban eta zilarrezko sprint itzuliko proban. Iturmendiarrarekin batera, Jonathan Galar eta Maite Ancin nafarrak

lehiatu ziren Mundialean, eta Europako Txapelketetan, aldiz, aipatu hiru irristalarietaz gain Leire Larrasoain, Mikel Faber, Adrian Garcia, Sergio Teré eta Maialen Oñate nafarrak aritu ziren.

## Txirrindularitza

## Juangok eta Aramendiak Rural Kutxa-Seguros RGA jarraituko dute



Mazkiaranek zuzendari jarraituko du.

Rural Kutxa-Seguros RGA talde afizionatua 2017 denboraldia prestatzen dabilta buru-belarri Rural Kutxa-Seguros RGA amateur edo afizionatuen taldeak ia guztia prest dauka 2017 denboraldirako. Euren web gunean azaldu dutenez, 2017ko taldean 24 txirrindulari arituko dira eta talde oso gaztea izango da. Aipatzekoa da soilik bakarrik duela elite maila, gainontzeko guztiak 23 urtez azpikoak baitira. Tartean jubentzian mailetatik etortziko 7 txirrindulariei egin diete harre- ra, baina Burundatik ez da txirrindularirik izango.

## TXIRRINDULARI GAZTEAK

2016 denboralditik 10 txirrindulari jarraituko dute taldean: Pablo Benito, Ander Alonso, Iker Azkarate, Pablo Alonso, Carlos Cobos, Xabier Cañellas, Aitor Rodriguez, Mauricio Moreira, Odei Juango lakuntzerra eta Eneko Aramendia iturmendiarra. Azkarate, emungo Euskadiko txapeliduna, izango da taldeko elite mailako txirrindulari bakarra.

Aipatutakoei beste 14 txirrindulari berri gehituko zaizkie: Alvaro Cuadros, Jaime Sureda, Sergio Martin, Javier Fuentes, Edwin Torres, David Martin, Abel Gebrehiwet eta ondoko juniorrak: Arturo Gravalos, Pol Hervas, Alejandro Caro, Franklin Chacon, Alex Burdoy, German Castell eta Szymon Tracz. Aipatzekoa da aurten Burunda Txirrindularitza Klubetik ez dela txirrindularirik izango Rural Kutxara.

Azkaraterekin batera Cañellas, Moreira, Alonso, Benito, Rodriguez, Cuadros, Sureda, Martin, Fuentes eta Torres emaitza onak lortzetik datoz eta taldean ezinbestekoak izango dira. Bestetik, estatuko talde ezberdinetatik etortziko juniorrak ere denboraldi bikaina osatuz datoz.

## MAZKIARANEN AGINDUETARA

Alberto Mazkiaran zuzendari altsasuarrik jarraituko du, 2017an, amateurren Rural Kutxa-Seguros RGA taldea gidatzen. Talde berri eta ilusionatua izango du bere aginduetara. Mazkiaranek aipatu digunez, plantilla ez dago guztiz itxita, bi txirrindulariren erantzun zain daude. "Taldea horrela geratu daiteke, bat gehiagorekin edo bi gehiagorekin, baina beti ere bi txirrindulari haue- taz ari gara, ez beste inortaz".

## Futbola

## Osasuna Promesasen hiru sakandar

Endika Irigoien eta Endika Galarzar Aitor Lorea gehitu zaie

Hiru futbol jokalaririk sakandar ditu, egun, Osasuna taldearen filialak, 2. B mailan jokatzen duen Osasuna Promesas taldeak. Endika Irigoien urdiandarrari eta Endika Galarza iturmendiarrari igandean taldearekin debutatu berri duen Aitor Lorea olaztiarra gehitu zaie.

Endika Galarza (1994, Iturmendin) eta Endika Irigoien (1997, Urdiain), atzelariak dira eta Aitor Lorea jubentzian (Olazti), aldiz, aurrelari moduan debutatu zuen igandean. Pontevedraren kontra jokatutako partidako 81. minutuan sartu zuen, Julen Hualde ordezkatzera. Osasunako jubentzian A mailakoa da Lorea.

Izan ere, igandean Pontevedra taldearen kontra aritu zen Osasuna Promesa. Juan Perez, Julen Hualde (Aitor Lorea, 81. m.), Endika Irigoien, Ivan Marquez, Steven, Imanol Garcia, Kike Barja, Imanol Arana, Nuha (Javi Martinez,



Osasuna Promesas taldea, tartean Irigoien, Galarza eta Lorea.

58. m.), Migel Diaz eta Jaime (Yoldi, 62. m.) izan zen Jose Manuel Mateo entrenatzaileak zelaira ateratu zuen Osasuna B-ko hamaikakoa. Gauzak ongi hasi ziren Osasuna- rendako, Kike Barjak talde gorritxoan aurreratu baitzuen. Pilotaren jabetza hartu zuten gorritxoek, baina galiziarrek gutxinaka partidaren sartzeko joan ziren. Horrela, Mourinok berdintzea lortu zuen.

Baina partida bukatzeko 18

minutuen faltan, Pontevedrako Mateok bigarren gola sartu zuen. Eta bukaeran, Pontevedraren 3. gola iritsi zen eta 3 eta 1 irabazi zion Pontevedrari Osasuna Promesasari.

Asteazkenean Ferroleko Racin- gen kontra aritu zen Osasuna Promesas Taxoaren, eta 1 eta 2 galdu zuten gorritxoek. Endika Galarzak partida guztia jokatu zuen eta Aitor Loreak minutu batzuk.

## Mendi txirrindularitza / BTT

## Sakandarrak Rio Lobos arroilean



Mank-ek Barranka Txirrindularitza Taldearen laguntzarekin antolatutako ibilbidean parte hartu zutenak. UTZITAKOIA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Barranka Txirrindulari Taldearen laguntzarekin, igandean BTT irteera antolatu zuten

Soria eta Burgosen artean dagoen Rio Lobos arroilera. 36,5 km-ko bizikleta ibilbidea izan zen, paraje zoragarrian. Parte-hartzea

oso polita izan zen baina, tamalez, txirrindulari batek erorikoa izan zuen eta hanka hautsia zuela, ospitalera eraman zuten.

## Txirrindularitza

## 2017ko Emakumeen Birako Etxarriko etapa zalantzan

Aurten Etxarri Aranatz izan zen Emakumeen Birako abiapuntuetako bat, eta 2017an berriro izan daiteke, baina UCIC du azkeneko hitza. Izan ere, Emakumeen Bira Pro Tourreko proba izan daiteke aurten. Birako antolakuntzak, aurreko urtean bezala, 5 eguneko proba antolatu nahi du, baina UCIC egun bat kentzea eskatu die.

## ETXARRIKO ERLOJUPEKOA ZALANTZAN

Aldaketarik ez, lehen etapa lurretan hasi eta bukatuko da, erlojupeko motz batekin. Antzuolan hasi eta bukatuko da bigarrena, Markina-Xemeinen hirugarrena eta Errenterian laugarrena. Eta bost eguneko proba ertsiz gero, Etxarri Aranatz 10-12 kilometroko erlojupeko antolatuko lukete.

## Automobilismoa



## Aldekoa eta Goikoetxea txapelidunak Alfaron

Igandean V. Alfaro Hiria Lur Eremua lur gaineko rallya jokatu zen, Errioxako Txapelketarako puntugarria. Carlos Aldekoa pilotuaketa Javi Goikoetxea kopilotu olaztiarrak (Ford Fiesta R5) irabazi zuten proba, ikusgarri aritu eta gero (20:02). 45 segundo ateratu zizkieten Gorka Aizmendi eta Errota Olasa-

gastiri (M. Lancer Evo X, 20:47).

Urriaren hirugarren asteburuan Espainiako Txapelketarako baliagarria zen Malagako Rallya ezin izan zuten despiditu Aldekoa eta Goikoetxeak, euren Ford Fiesta R5ean arazo elektrikoa izan eta gero. Beraz, Alfaron garaipenak airea eman dio bikoteari.

## Futbola

## FEDERATUTAKO TXAPELKETA

## PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

7. JARDUNALDIA

## SAN ANDRES 1 - LAGUN ARTEA 4

## LEZKAIRU 2 - ETXARRI ARANATZ 0

Lizarran, San Andres ez zen batere fin ibili eta akatsak primeran aprobetxatu zituen Lagun Arteak bertatik hiru puntu ekartzeko. Aldeko penaltia huts egin zuen ere San Andresek. Lagun Arteak atsedendaldirako bi gol sartu zituen eta bigarren zatian beste bi (Gari, Salgado (2) eta Eneko Cruz). Bukaeran sartu zuten San Andresekoek. Iruñetik, aldiz, punturik gabe itzuli zen Etxarri. Baloi luzean pelea izan zen nagusi, 2. zatiko 50. minutuan Lezkairuk gola sartu arte. Etxarri erasora ateratu zen eta defentsa nahiko eskasa zegoen une bat aprobetxatu zuen Lezkairuk bigarrena sartzeko. Horrela despiditu zen lehia.

Saillkapena &gt;&gt;

1. Bidezarra ..... 17 p
2. Lagun Artea ..... 13 p
13. Etxarri Aranatz ..... 8 p

Asteburuko jardunaldia

## LAGUN ARTEA - LEZKAIRU

(Igandean, 15:30ean, Lakuntzan)

## ETXARRI ARANATZ - MUTILBERA

(Igandean, 16:00etan, Etxarri)

## ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

6. JARDUNALDIA

## BETI KOZKOR 2 - ALTSASU 2

Partida bikaina jokatu zuten Beti Kozkorrek eta Altsasuk. Partidaren lehen zatia dominatu zuten Beti Kozkorrek eta bereaiek aurreratu ziren markagailuan. 2. zatia hasi eta berehala, bigarren gola sartu zuten. Baina Altsasuk ez zuen etsi eta Javierrek sartutako bi golei esker bina berdintzea lortu zuten gorritxoek eta puntu ederra ekarri zuten.

Saillkapena &gt;&gt;

1. San Jorge ..... 16 p
7. Altsasu ..... 6 p

Asteburuko jardunaldia

## ALTSASU - SAN JORGE

(Larunbatean, 15:45ean, Dantzalekun)

## EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

7. JARDUNALDIA

## KIROL SPORT 4 - ALTSASU 2

Saillkapena &gt;&gt;

1. Unziti ..... 15 p
2. Zaldua ..... 13 p

Asteburuko jardunaldia

## ALTSASU - OSASUNA FUNDAZIOA

(Igandean, 15:45ean, Dantzalekun)

## Areto futbola

## Nafarroako derbia larunbatean

Aspil Vidal Ribera eta Magna Gurpea Xotak bihar jokatu dute, Tuteran

Magna Gurpea Xotak Pescados Burela taldea hartu zuen ostiralean Anaitasunan. Imanol Arregiren mutilek sekulako partida jokatu zuten, partida goitik behera dominatu zuten, eta 5 eta 2 hartu zuten menpean Burela, Rafa Usin (2), Araça, Martil, eta Eseverriren golekin. "Denboraldi honetan orain arte jokatu dugun partidarik osoena izan da hau. Garaipen justua izan da" azpimarratu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

## DERBIA TUTERAN

Movistar Inter da liderra (12 puntu). Magna Gurpea Xota 6.a da (8 puntu). Larunbatean talde berdearen eta Aspil Vidal Ribera Navararren arteko denboraldiko lehen derbia jokatu da, Tuteran, 18:30ean. "Partida berezia izango da, eta konplikatu" azaldu du Imanol Arregik. Saillkapenean 12.a da Aspil Vidal Ribera, hiru punturekin. Bi taldeak irabaztera aterako dira.

# Etxarri: preferenteari eustea helburu

## Sakana mailako talde indartsu bat sortzea, beharrezkoa?

Sakana mailako talde indartsu bat sortzea beharrezkoa den edo ez galdetu diogu Etxarri taldeko entrenatzaile Iosu Murgiondori. Eta busti egin da etxarriarra. Taldea sortzearen aldeko iritzia du Iosu Murgiondok. "Sakanan hiru klub gaude, Lakuntzako Lagun Artea, Altsasu eta gu, Etxarri. Bakoitzak bere arazokak ditu. Gurea igual da gehiago ekonomikoagoa, lakuntzarrena akaso une puntualetan jokalarien falta eta Altsasun aurrekontua badute eta klub sendoa dira, baina gero ez dakit zer gertatzen zaien emaitzek ez dietela laguntzen eta erregional mailan jarraitzen dutela. Batzuetan gure artean hitz egin izan dugu, lakuntzarrekin bereziki, eta badakit gure klubetan hiru taldeak batu eta Sakana mailako talde indartsu bat sortzearen aldeko eta kontrako jarrerak daudela. Klub berebean batzuk beharrik izaten dute eta beste batzuek ez. Baina nik uste dut interesgarria izango litzatekeela" ondorioztatzen du Murgiondok.

### Arazoak

Aldeko arazoak aipatzen ditu Murgiondok. "Horrela diru-laguntza gehiago izango genituzke; Udalena, Mankomunitatearena... eta talde gehiago izango genituzke; haur guztiek jokatzeko aukera izango lukete. Hori da inportanteena. Talde ezberdinak izango genituzke, onenena eta maila baxuago bat dutenena. Eta denok aritzeko aukera lukete. Talde oso onak sortuko genituzke eta jokalariek bakoitzak bere adineko jokalariekin jokatu luke. Hori oso garrantzitsua da" dio. Sakana mailako taldea sortzen ez litzateke goiko kategoriataik hasiko, preferente eta erregional mailatik, kategoria txikietatik baizik. "Hortik hasi behar ginateke lantzen" dio.

### Mank

Sakana mailako taldea sortzeko bide horretan Sakanako Mankomunitatea sartu beharko litzatekeela iritzia dio etxarriarrak, hiru klub artean zubi lana egiteko. Dena den, momentuz nahiko zaila ikusten du. "Zaila da, egun klub bakoitzak berea nahi du, baina nik uste dut, etorkizunari begira, hoberena litzatekeela. Bestela, azkenean gertatuko da arazo ezberdinegatik klub bat edo beste desagertuko dela eta gelditzen den taldea egoera onean geratuko dela". Eta non jokatu liriteke partidak? "Hiru klubek instalazio onak ditugu. Zer inporta da noren zelaian jokatu? Niri berdina zait, baina egia esan, askori ez zaie buruan ere sartzen" gaineratzen du Murgiondok.

## Etxarri Aranatz 2016-2017



**ATEZAINAK:** Ivan Gorritz eta Julen Iriarte. **ATZELARIAK:** Luis Goñi, Xabi Bakaikoa, Unai Artieda, Iñaki Razkin, Julen Iragi, Andoni Agirre, Oihan Karasatorre eta Mikel Arratibel. **ERDILARIAK:** Asier Urkia, Gentza Erdozia, Alain Perkaz, Asier Arratibel, Alain Iriarte, Joseba Razkin, Aitor Saez, Adrian Garziandia, Ivan Cerezo eta Jurgi Kintana. **AURRELARIAK:** Mikel Goikoetxea, Xabat Goikoetxea, Jon Razkin, Garat Flores eta Mikel Martiarena. **ENTRENATZAILEA:** Iosu Murgiondo. **BIGARREN ENTRENATZAILEA:** Jose Guillorme.

### Iosu Murgiondo etxarriarrak hartu du taldea entrenatzearen ardura

2016-2017 denboraldiari gogo handiz ekin dio Etxarri Aranatz taldeak. Zazpi jardunaldi jokatu, sailkapenean 13.a da taldea, 8 punturekin. "Hasiera ez da oso ona izan, baina futboleak boladak izaten dira. Aurreko denboraldian denboraldi oso osoangoian egon ginen eta bukaeran bolada txar bat izan genuen. Denboraldia luze egingen da eta ongi hastea garrantzitsua da. Baina talde ona dugu, konprometitua eta buelta eman gogoz" adierazi digu Etxarri Aranatzko entrenatzaile berriak, Iosu Murgiondo etxarriarrak.

Preferente mailako taldea lehenengo entrenatzen du Murgiondok. Iaz bigarren entrenatzailea izan zen, Fernando Montori laguntzen. "Montorik 20 urte baino gehiago zeramatzkien futbol taldeak entrenatzen. Konfiantza handia genuen berarekin, oso gustura geunden. Baina esan zigun entrenatzeaz utzi nahi zuela. Juntan bi kide geunden entrenatzaile karnetarekin, taldea entrenatzea proposatu zidaten eta onartu nuen" azaldu digu Murgiondok.

Murgiondok 8 edo 9 urte daromatza Etxarri klubean. "Kadeteak entrenatzen hasi nintzen orduan. Orain, preferentean orduko kadeteak ziren jokalariek batzuk ditut. Beste batzuk nire kuadrilakoak dira, guztiak ezagunak, finean. Hori alde batetik oso ona da baina bere alde txarra ere badu. Beste herri bateko entrenatzailea bere etxera doa eta deskonektatzen du. Nik zaila da. Hemen 24 orduetan zara entrenatzaile. Baina momentuz ongi daromat. Ni naiz entrenatzaile eta nik hartu behar ditut erabakiak. Nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz" nabarmentzen du 26 urteko gazteak.

### Taldea osatzen dute

Duen taldearekin oso kontentua dago Murgiondo. "Nahiz eta gauzak hobeki edo okerrago joan, guz-

tiaren ginetik Etxarri Aranatz beti talde bat sentitu izan gara. Orain Etxarri preferentean 25 fitxa ditugu. Hortik 16-17 etxarriarrak dira, Irurtzungo bat, Satrustegiko bat, lakuntzar bat Etxarri klubeko taldeetan trebatutako bakaikuarrak eta inguruko herrietakoak... Eta hori nabaritzen da. Jokalariak ongi ezagutzen dira, harreman oso ona dute eta giroa ona da. Beste edozerren ginetik talde bat osatzen dugu. Gainera, taldea oso konprometitua da, txintxoak dira entrenatzeko orduan. Piña bat gara, eta giroa ezin hobea da" dio entrenatzaileak.

Etxarriren helburua preferente mailari eustea da. "Aurreko urtean helburua eremantentzearen eta espero baino hobeto aritu ginen, denboraldi oso goian egon ginelako. Bukaeran bolada okerrago izan genuen eta azkenean seigarrenak sailkatu ginen. Helburua preferente mailan jarraitzea da" azpimarratzen du. Lakuntzako Lagun Artekoek bezala, liga estua izan dela uste dute Etxarri. "Orain arteko partidetan detaile txikiak egiten dute partida bat irabaztea edo galtzea. Edozeinek irabazten dio edozeini. Lehenengo taldeari irabaztea edo azkenekoaren kontra galtzea, hori gertatzen ari da. Dena den, Bidezarra eta Beti Casedano ikusten ditut talde onak" dio Iosu Murgiondok.

### Talde gaztea, konpletoagoa

Aurreko urtean baino talde hobea duela uste du Murgiondok. "Taldea gaztea da, eta kanpoko taldeetan jokatzeko ari ziren jokalariek ere berreskuratu ditugu. Jokalariak joaten direnean faltan botatzen ditugu, baina bueltatzen direnean, jende hori erreperatzen duzunean, prestatuago dator. Eta hori ona da taldearendako. Bestalde, jokalariek beterranoak ere badaude. Nire ustetan aurtengo taldea iazkoa baino konpletoagoa da, talde gaztea baina ona. Talde konprometitua, sekulako giroarekin" aitortu digu Iosuk.

### Harrobia

Preferentean dagoen taldeaz gain, Etxarri Aranatzek beste talde batzuk ditu. Jubenilen taldea, kadeteena, haurren mailakoa eta kimuen eta benjaminen taldeak. "Harrobia badugu, baina jende nahiko juxtu gabiltza. Infantiletan 20 gaztetxo badituzu, horietatik igual 17 iritsiko zaizkizu kadeteetara eta horietatik igual 13 jubenetara... herri txikiak taldeek harrobiarekin arazoa izaten dugu tarteka. Gertu dago Lakuntzako taldea, eta inguruetako herriko haurrak bi taldeen artean banatzen dira. Harrobiaren gaia denondako zaila da" dio Murgiondok.

### Junta

Etxarri Aranatz klubeko juntako presidentea Eduardo Elso da. Iñaki Elvira presidente orde eta diruzaina da eta Iña Arratibel idazkaria. Bokal lanetan aritzen dira Jose Javier Urkia, Jose Guillorme, Fran Gomez, Xabier Errazkin eta Koldo Murgiondo.

### Altak eta bajak

**Bajak:** Etxarri 10 baja izan ditu: Fernando Montori entrenatzailea, Pablo Jauregi, Javi Rueda, Xabier Urrestarazu, Aritz Ikobaltzeta, Markel Erdozia, Markel Azkona, Ekhi Etxeberria, Amaier Ginea eta Ander Zelaia.

**Altak:** Haiek ordezkatzeko 10 alta ditu taldeak, Iosu Murgiondo entrenatzaileaz gain Alain Perkaz ziodiarra, Araiako Alipenditik etorri dena, Asier Arratibel, urte batzuk futbola utzi ondoren jokatzera bueltatu dena, eta jubenetatik igotzen diren Adrian Garziandia (Etxarri), Oihan Karasatorre (Beasain), Jurgi Kintana (Pamplona), Jon Razkin (Etxarri), Mikel Arratibel (Etxarri), Julen Iriarte (Etxarri) eta Garat Flores (Oberena).

# Non erabili

## ETXARRI KOMERTZIALA

**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua koltxoetan.

## ARKANGO TABERNA ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

## GIXANE ESTETIZISTA ALTSASU

Produktua opari.

## PINPILINPAUSA ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

## TEXARTU IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

## CLINKER OLAZTI

Menu bereziarekin txupittoa doan.

## SORKUNDE HARATEGIA ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

## BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

## IKER KIROLAK ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilteko.

## URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

**ETXARRI ARANATZ**  
%20ko deskontua kontsul-tan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

**POP-JAZZ DOINUAK:** Zamarra eta Aterkia Lekunberritik heldu den musika proiektua da. Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko Barandi tabernan izanen da. Prestatzen ari diren

diskoaren aurrerapen gisa 2. maketa aurkeztuko dute Xabier Zamargileak, Beñat Artzek eta Manex Albirak.

## Gozagarrria



**Flirt-art ikuskizunetik pozik atera zen jendea astelehenean**

Gozamenez programaren 15 urteurrena ospatzeko eszenatokia egin zuten Haize Berriak bandak, Zirika Zirkusek eta Zirkus blai zirku talde gazteak. Pantxika Lamur izan zen publikoaren etasortzaileen artean zubilana egin zuena, aurrera eta atzera ibiliz, umorez beti bezala. Lamur berak, akrobatek eta malabaristek

Luis Orduña zuzendariak eta bandako kideek elkarri eragin zioten. Sakanako Gozamenez batzordetik adierazi dutenez, astelehenekoa eta gero "poz-pozik" daude, "oraindik liluratuta". Ikuskizunera joandakoei eta bestelako laguntzaileei esker "Gozamenez programarekin segitzeko gogori eta ilusioari" eusten diotela nabarmendu dute. Horregatik, pertsona horiei guztiei esker ona azaldu diete. +www.guaixe.eus

Foru-rockaren aurreneko urratsen dokumentalean irurtzundarrek lan egin dute

**Soñua, Oihuka eta Gor diskoetxeetan lanean eta hainbat taldeetan jotzen aritutakoa da Marino Goñi**



Nafarroako musika eszena aspaldi ezagutzen du eta ezagutza horretatik abiatuta *Cortate el pelo*, Nafarroako rocka 60. hamarkadan dokumentala. Ikusentzunezko lana egiten Goñik bi irurtzundarren laguntza izan du: Xabier Unanua (argazkia eta edizioa) eta Jorge Cordon (grabazioa eta edizioa).

Dokumentala egiteko diru-bilketak, crowdfundinga, hasi dute Verkami plataformaren bidez. Azaroaren 12rako 3.700 euro eskuratu nahi dituzte. +www.guaixe.eus

Alex Sarduiaren eleberria irakurtzeko gonbidapena



**Idazlea irakurleekin elkartuko da abenduaren 15ean, 10:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean**

irakurri eta idazlearekin iritziak partekatzea gonbidatu gaituzte.

### Alex Sardui

Zutabeak eta kantuen hitzak idatzi izan baditu ere, Alex Sardui (Gernika, 1966) musikaritako du bere burua, horrelaxe baita ezaguna Euskal Herrian. Gatibu taldeko kantariak aspalditik zuen barruan zuen istorio bat kontatzeko gogoia, eta *Esan eta egin* lanarekin egin zuen debuta. Sardui azpimarratu du literatura konplikatu egiteko joera dagoela azken aldiaren eta berak literatura irakurteraz egin nahi izan duela, literatura mota hori faltan botatzen duelako.

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Bakemono no Ko (haurra eta piztia)

ZUZENDARIA: MAMORU HOSODA  
IRAUPENA: 120 MINUTU

Maisulana den pelikula honetan, Mamoru Hosodak gizakien arteko harremanak lantzen ditu, eta batez ere, hazten ari den mutil koxkor baten hezkuntza eta nerabearoa. Ikaste-txeetan erabilgarri dela deritzot nerabeek ingai korapilotsuak lantzeko, hala nola, adopzioa, familia eredu ezberdinak edo gazte eta haurrei informazio bere onerakoez kutatzeak ekarri ditzakeen arazo larriak. Ren dugu pelikularen protagonista, bederatzi urteko haur bat. Bere amarekin bizi da; aita etxea utzi egin zuen aspaldi. Beraz, aita gabe bizi izan da bere haurtzaro osoa, ez du izan gizon ezko eredurik. Pelikula, ama gaixotu eta hil ondoren hasten da, Ren guztiz galduta aurkeztu zaigularik, negarrez. Bere haurtzaroan murgilduta oraindik, guztiz galduta dago munduan, eta bere aiton-amonekin bizitzera joan beharrean, ihes egiten du etxetik eta hirian murgiltzen da kaleetan bere burua galduz. Ez du ulertzen ez onartzen gertatu zaiona, eta bere buruarekin eta munduarekin

haserredago. Metaforaz beteriko irudiekin ederki aurkeztu zaigu sentimenduen eszenifikazioa. Barruan sentitzen duen hutsunea, galduta egotearen sentsazioa, gurusoak galtzea...

Hirian galduta dagoela, bat-batean, izpiritubatik ikusietatik bere atzetik, mundu miragarri batean agertzen da, japoniar Erdi Aroko herri baten parekoa baina animalia itxurako izpirituz beterikoa. Bijainkotasunen arteko gatazkaren erdian, nahi gabean baten morroi eta ikasle bezala bukatzen du. Honela, inoiz ikaslerik izan ez duen jainkotasun berekoi eta harropuz batekin ematen dituen urteak, nerabe izan arte.

Bien arteko elkar laguntze eta ikasirakasteak (eta noski, bien arteko errieta, liskar eta sesioak), bien bizia aldatu eta aberasten doa, nahiz eta normala den bezala, nerabeak bere familia ez induen ahaztu. Honela, bere aita biologikoa bilatzera ere bueltatzen dago galduta eta barruko hutsunea ulertuz eta betez, nor den barneratzen du. Bere bi zatiak onartzen ditu, hezi duen munduaren zatia, eta jatorrizko haurtzaroko zatia.

Pelikula, nahiz eta abentura eta akzioz mozorrotu, sentimenduen azalpen zoragarria da. Renek bere



jatorria zein den jakinda, galdera asko ditu eta erantzunak bilatuz, pertsona heldua izatera iristen dela ikus daiteke. Ez da bide erraza izango, baina, azkenean, osasuntsu iritsiko da heldutasunera. Bestalde, etsai bat ere izango du protagonistak, jakina. Renek sentitzen dituen hutsune eta sentimendu berdinak ditu, baina sortzen zaizkion galderei erantzunaez indie aurkitu, bere jatorria ezkutatatu diote eta. Horren ondorioz, etsaiak mundu osoa suntsitzeko arriskua du, kontrolatu ezin dituen sentimendu gaizto eta ilunek guztiz menderatuta. Pelikulak arrakasta handia izan zuen Japonian, bere garaian ikusiena izan zelarik.

### Martirena NFWn

Nafarroako Moda Astearen barruan, lastailaren 22an, Trending Chef ekitaldia izan zen. Han modak, gastronomiak eta ile-apaintak eskua eman zioten elkarri. Izan ere, diseinatzaileen jantzieta oinarrituta sukaldariak eta ile-apaintzaileek euren sormen lana egin behar izan zuten. Etxarrengo Ilazki Martirenak Baserri-berri jantzi txeko Iñaki Andradas sukaldariarekin eta Luzia Zabala ile-apaintzailearekin parte hartu zuen ekitaldian. Martirenaren jantzi hori elektriko batek bonbila itxurako platera sortzea ekarri zuen eta horrela Andradasek #TrendingChef 2016 saria eskuratu zuen.

Etxarrendarra La Morea merkataritza gunearen diseinatzaile berriendako lehiaketaren laugarren edizioan saritua izan da aurreten. Sariketa martxoan izan zen, 16 diseinatzailearen parte hartzearekin. Haietako bederatzi aukeratu zituzten eta euren lanak merkataritza gunean ikusgai izan ziren, bezeroek gogokoenaren alde botoa eman zezaten. Ilazki Martirena bigarren gelditu zen. 2014an irabazi egin zuen.

### Goikoetxea eta Salazar Nafarroako Museoan

Goioetxea, inflexioa. Emakumeen presentzia Nafarroako Museoan. Hori da Nafarroako Museoak bere funtsekin osatutako erakusketa. 13 emakumeren obra dira, haien artean Asun Goikoetxea bakaikuarra eta Dora Salazar altsasuarra daude. Erakusketa horren bitartez museoak bere buruari egindako genero instituzio eta ondare azterketaren emaitza publiko egin du: emakumeen presentzia eskasa. Museoak jokabidea aldatuko du. +www.guaixe.eus

### Salazar Artekon

Donostiako Arteko galeriak bi hamarkada bete ditu. Donostiaren 2016 ikuspegi erakusketan 18 artisten lanak, batzuk aurretik erakutsiak, berriak besteak. Eta haien artean Dora Salazarren lanak daude. Sortzaile altsasuarrak Donostiako argazkien gainean hainbat teknika erabiliz sortutako irudiak dira ikusgai daudenak, ilbeltzaren 6ra arte.

## Arnanzen industria-ondarearen erakusketa Zizur Nagusian

**Gaur mustu, 19:00etan, eta hilaren 27ra arte izanen da ikusgai kultur etxean, lan egunetan 19:00etatik 21:00etara eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara**

**A**urri egoeran dauden lantegi zaharrak edo haletatik gelditzen diren egiturak. Horiekin margo sail bat sortu zuen Kol-

do Arnanzek eta *Keinu bat iragan industrialari* erakusketa osatu. Tamaina handiko eta ertaineko koadroetan jaso du industria ondare hori Arnanzek. Margolari altsasuarrak, argazkietatik abiatuta, teknika mistoa erabili du sail hori sortzeko. Olioia erabili du gehienetan, baina collagea edo grafitoz sortutako lanak ere badaude. Gaurko mustutze ekital-

dian Iñaki Auzmendi kantari etxarriarrak kantatuko du. Erakusketa bera duela urte bat Iruñeko Kondestable jauregian ikusgai izan zen.

Erakusketaren osagarri gisa, V M Egia Astibiaren hitzaldia izanen da: Nafarroako industria-ondarea, ahaztu handia. Hitzaldia azaroaren 9an, asteazkenean, izanen da, 20:00etan.



## Folk garaia

**Larunbatean eta igandean, 19:30ean, folk doinuak kultur etxean**

**F**olk Ametsetan zikloak ez du hutsik egin eta, berriz, gure artean da. Astebururako bi hitzordurekin heldu zaigu zikloa. Kultur etxe oholta zapaltzen lehena, bihar, Poloniako Januzs Prusinowski Kompania taldea izanen da. Mazurkaren sorlekua ikuskizuna ekarriko du Irurtzunera taldeak.

Poloniak musika-ondare zabala du eta mundu guztira hedatu da. Horren erakusle mazurkak dira. Poloniako landa-eremuetan sortutako doinu horiek munduan barrena bertsoietarako inspirazio-iturri izan dira. Polonesekin ere antzeko gertatu da. Taldeak herri-ondare horren iturri bizitik edan eta gaur egungo ikuspuntutik, ezagutza handia eta trebezia teknikoa batuz, errepertorio berria sortu du.



Larunbateko Poloniako doinuek Euskal Herrikoei utziko die txanda. Seiren bikotea Jokin Lacallek (ahotsa eta biolina) eta Onintze Garciak (ahotsa eta giterra akustikoa) osatzen dute. Igandeko emanaldian, akustikoa, hainbat doinurekin gozatzeko aukera izanen da: pop klasikoa, countrya eta doinu zeltak. Ahots eta soka instrumentuen soiltasunarekin entzulea kantuan erabat murgiltzea bilatzen du bikoteak, apaindurak albo batean utziz, hitz bakoitzari, mezuari garrantzia emanez. +www.guaixe.eus

## Biak bat: Rocka eta abesbatza



**Larunbatean, 20:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean**

**R**ock and choir ikuskizuna eskainiko dute El Desvan rock taldeak eta Iruñeko Orfeoia Gazte-Koruak bihar. Abesbatzako 50 gazte baino gehiago eta El Desvan taldeko lau musikariak izanen dira ohol-tzan. Emanaldi horrekin, alde

batetik, Orfeoiko Gazteen Abesbatzaren rock alderdia eta, bestetik, rockzaleei abesbatza musika ezagutarazi nahi da. Hala, orfeoia rockzale eta rockzaleak abesbatza zale bihurtzea. Bien artean rockeko obra klasikoak, El Desvan taldearenak, bi taldeek elkarrekin interpretatuz, eta abesbatza-musika eskainiko dute. +www.guaixe.eus

## Dantza dastaketa

**Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean**

**D**antza konpainiak bost pieza koreografikoz osatutako ikuskizuna da *Aureo*. Dantza estilo ezberdinen dastaketa da proposatzen dena: "dantzan adituak direnak edo dantza ikuskizun bat sekula ikusi ez dutenak aseko dituenak". Hura sortzerakoan bi inspirazio iturri izan ditu konpainiak: antzinako Greziatik artean erabilitako urrezko zenbakia edo proportzio jainkotiarra eta hainbat sorkuntza dastatzeko ideia. Hala, dantza ikuskizunak sorkuntzaren eta ikusleen, kalitate eta gertutasunaren, bikaintasun eta erakargarritasunaren, egile handi eta lan berrien arteko proportzio egokia bilatzen du, ikusle guztien aurrean eta espazio



ugaritan.

Ikuskizuna Europako dantzari gazteek gorpuzten dute: Jone Amezaga, Richard de Leyos, Gilles Noëleta John O'Gara. Konpainiak

bost koreografo ospetsuekin lan egin du *Aureo* sortzeko: Itzik Galili, Lukas Timulak, Jone San Martin, Christine Hassid eta Judith Argomaniz. +www.guaixe.eus

# Sakanako HOTSAK

Kontzertu · akustikoa  
Azaroaren 12an (larunbatarekin)  
20:00etan  
Altsasuko Iortia kultur gunean

· Tximeleta · Fran eta Zuriñe (Hesian)  
· 4nek · Lur Larraza eta Vendettako  
Luisillo Kalandraka · Hi de bei ·

## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 60%	euria: 99%	euria: 97%	euria: 97%	euria: 95%	euria: 96%	euria: 95%	euria: 95%
Min: 9 Max: 15	Min: 9 Max: 10	Min: 5 Max: 7	Min: 3 Max: 7	Min: 2 Max: 5	Min: 3 Max: 8	Min: 5 Max: 9	

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	24	2.5	0
Etxarri A.	22.5	-1	0
Altsasu	23	1	0
Aralar	21.6	5.8	0
Urbasa	21	-2.5	0

## : ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	7	14	21	29

## EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

### AZAROKO SARIAK:

**1. SARIA:**  
Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

**2.,3. ETA 4. SARIA:**  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

# >> 11 galdera

## Begoña Zestau

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuko teknikaria

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



## Eguberriak Sakanan

GEHIGARRIA

publizitatea

948 564 275 | 948 562 107

publi@guaxe.eus | publicitate@guaxe.eus

**1. Aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza kanpaina noiz hasi zenuten?**  
Kanpaina hau 2015 urtean hasi genuen, baina aurretik ere aipatu baloreak lantzen genituen Sakanako Immigrazio Zerbitzuan, baina orduan herrira antolatzen ziren jarduerak. Hori dena zabaltzeko beharra ikusi genuen, Sakanamailara burutzekoa. Horrelaxe jaio zen kanpaina. Zortzi urte bete ditugu zerbitzuan; aniztasuna, errespetua, diskriminazio eza eta berdintasuna baloreak sakandar guztioi helarazi nahi dizkiegu.

**2. Nola izan zen 2015eko lehen edizioa?**  
Festen garaian giroa izan zen kanpaina. Festetan egitea egokia iruditu zitzaigun, denok baiko-rrago eta alaiago gaudelako. San Joan jaietan hasi ginen. Udaletako balkoietan pankarta bat jarri genuen, txupinazoa jaurti behar zuen pertsonari balore hauek laburbiltzen zituen kamiseta bat ematen genion, eta horretaz gain kamiseta horiek salgai jartzen genituen. "Nik maite dut aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza" zen leloa. Balore horiek dira Sakanako Mankomunitateko Immigrazio zerbitzutik bultzatu nahi ditugunak.

**3. Aurten bigarren edizioarekin aurrera jarraitu duzue, ezta?**  
Kanpainaren harrera ona eta arrakasta ikusita, bigarren edizioa martxan jarri genuen aurten.

**4. Berrikuntzarik izan duzue?**

Aurreko edizioetako jarduerak mantentzeaz gain, norbanakoaren konpromisoa bilatu egin nahi izan dugu. Horretarako Sakanako pertsona desberdinen aurpegien argazkiak atera ditugu, Sakanako aniztasuna erakusteko. Arlo desberdinetakoak izan dira protagonistak: kirola, hezkuntza, politika, osasungintza, jatorri anitzeko jendea, idazleak, kazetariak, kultura... Gure bailaran dagoen aniztasuna erakusten saiatu gara eta kanpainari indarra eman nahi izan diogu.

**5. Nola burutu duzue kanpaina?**  
Photocall moduko bat jarri egin dugu herriko jaietan ala immigrazio zerbitzuak antolatutako ekimenean. Bertan kanpainaren nondik norakoak azaltzen zituen boluntario bat egoten zen. Batzuetan zerbitzutik aritu gara argazkilaria lanetan eta beste herri batzuetan boluntario askok lagundu digute argazkiak ateratzen. Ia herri gehienetan egon gara eta oso pozik gaude.

**6. Zenbat argazki lortu dituzue?**  
Nik uste 300 argazki inguru atera ditugula orain arte. Baina nire lankide batzuek ere argazki gehiago dituztela badakit.

**7. Argazki horiekin kartelak egin dituzue ezta?**  
Bai. Lehenengo kartelak ekainean argitaratu genituen eta besteak, berriz, abuztu aldera. Orain kanpainari bukaera borobila emateko argazki gehiago lortu nahi ditugu, ahalik eta gehien.

**8. Zein da bigarren kanpaina honetako helburu nagusia?**  
Sakana bailara anitza da, jende desberdina dago eta askotan hori dena onartzea ez da lan erraza. Lan handia dago, oraindik ere, berdintasun hori lortzeko, bai gizon emakumeen artean, jatorri, erlijio, kultura, hizkuntza, eta abar luze batean. Kamiseta bat jartzearekin soilik ez du balio, balore horiek gure bizitza errealean praktikan jartzen ikasi behar dugu, horrela elkarbizitza baikorrena lortuko dugulako.

**9. Protagonista berezi batzuekin ere bideo bat egin zenuten.**  
Pirritx, Porrotx eta Marimotos Altsasura etorri ziren eta haurtzaroi keinu bat egiteko, beraiekin bildu eta haiek bideo bat egitea proposatu ziguten. Sare sozialetan eta Sakanako Mankomunitateko web orrialdean ikusgai dago.

**10. Bukaera borobila eman nahi diozue kanpainari. Nola?**  
Guaixeko orrialde zentrallean kanpaina honekin bat egiten duten sakandarren argazkiak agertzea nahi dugu. Abenduko ale batean izanen litzateke eta ahalik eta argazki gehien lortu nahi ditugu. Sakandarrei gonbidapena luzatzen diegu norberaren argazkia atera eta guri bidaltzeko. Argazkia bakarrik aterako da, izen-abizenik gabe, eta kanpaina bukatzen denean suntsitu egingen dira.

**11. Argazkiak nora bidali behar dira?**  
Azaroaren 25era arte, 639 12 72 71 telefono zenbakira ala immigrazioa@sakana-mank.eus postara.